



Gehigarri berezia

Oihangintza → 25-28

BERA → 10

Haur eta Gazteko kantarien jaialdia martxoaren 3an

ERRAN.EUS → 23

Inauterietako argazki lehiaketa antolatu du

BAZTAN → 32

Belatan nazioarteko kamioiak debekatzeko nahia

URDAZUBI → 38

Ogasunak 124.500 euro galdegin dizkio Udolari

Lucia ETXEBERRIA | Nafarroako Brigada taldeko goizuetarra

«Oinarria aldatu ezean, migrazio masiboa geldiezin izanen da»



ELKARRIZKETA → 3

Nafarroako Brigada taldeko sortzaileetako bat da Lucia Etxeberría goizuetarra eta talde horretako kideekin batera, joan den urteko udan Kiosen izandu zen. Grezian errefuxiatu gehien hartzen dituen irltetako bat da Kios, eta hilabete pasatu zuen Etxeberríak han. Esperientzia hura etorkizunerako indarra hartzeko abiapuntua izandu da beretzat, eta orain, hango egoera ikusaraztea dute helburu.

Arantzako III. Trikitixa Jaialdia martxoaren 10ean egingen dute

→ 14



Joana HARANBURU | 'Txistor' presoaren alaba

«Bat ohitu egiten da haur motxiladun izatera; nik ez dakit zer den egunerokoan aita bat izatea»

Eskualdeko bartz neska-mutikok espetxean dute aita eta ehunka eta ehunka kilometro egin behar izaten dituzte aitarekin egon ahal izateko. Urte luzez, haur motxiladuna izandua da Senpereko Joana Haranburu, eta 36 urterekin, oraindik ere errepedean kilometroak eta kilometroak egiten segitzen du.

ERREPORTAJEA → 5-5

SARA → 39

Zuhaitz lepatuen Europa mailako jardunaldia

Hamar herrialde baino gehiagotako jendea bilduko da Saran martxoaren 1etik 3ra. Mintzaldiak, mahai-inguruak, filmak, oihanera bisitak eta gehiago izanen dira. 300 lagun espero dituzte.

ZOKKETAK

→ 52



Txartela egiteko deitu **948 63 54 58**ra edo idatzi **info@ttipi.eus** helbidera.



Araso poligonoa
Erregeoina behea, 2 J
20305 **IRUN**

Telleriarte 16. 4-5 pab.
(Zubitxo) 20230 **LEGAZPI**

Tel. 943 730 699 | www.aterki.com

info@aterki.com

Arazoak dituzu?

**LIZUNAREKIN eta
HEZETAUNAREKIN
KONDENTSAZIOAGATIK**



ISOLAMENDUA

Espezialistak gara kondentsazioak eragindako hezetasun arazoak konpontzen. Kasu bakoitzaren arabera, sistema **isolatzailerik onenak injektatu edo intsufilatuta, hobekuntza termiko nabarmena** lortzen dugu, eta, ondorioz, **berokuntzan aurreztea** ere bai. Aire hotzaren korrontekak saihestuta eta etxebizitzako tenperatura mantenduta, bero, ongizate eta osasungarritasun handiagoa izanen dugu.



LEHEN



ORAIN

Arazoak dituzu?

UR FILTRAZIOEKIN

OBRARIK GABEKO INPERMEABILIZAZIOAK

Azken belaunaldiko materialak eta teknikarik berritzaileenak erabiltzen ditugu, **inpermeabilizazio likido eta proiektatuak, jarraiak, atxikituak, flexibleak, iraunkorrak eta dekoratzaileak lortzeko**. Poliuretano eta poliureen bitartez, **emaitzarik onenak** eskuratuko ditugu ahalik eta gutxienean, **kostu txikiagoarekin**, berme osoz eta **OBRARIK GABE**. Sistema bikainak dira etxebizitza partikularretako terrazak eta balkoiak berritu eta inpermeabilizatzeko.



LEHEN



ORAIN

KALITATEZKO KONPONBIDEAK BERME HANDIAGOAZ



2017an «egungo egoera latzari aurre egiteko helburuz» sortu zen Nafarroako Brigada taldea. Pixkanaka, Kiosera joateko proiektua eskuartean zutela, «ahoz aho, Facebook bidez,

Whatsappez, iragarpen kartelak jarritz...» hogeita hamar laguneko taldea osatu dute. Beste elkarte batzuen laguntzak eta beraien lan oparoak, buruan zuten proiektu hori erre-

litatean ikusteko bide eman zien. Hilabeteko esperientzia hura etorkizunerako indarra hartzeko abiapuntua izan da. Orain, hango egoera ikusaraztea dute jomuga.

Lucia ETXEBERRIA | Nafarroako Brigada taldeko sortzaileetako bat

«Kioseko errealitatea ikusteak lanean jarraitzeko indarra eman digu»

N. BAZTERRIKA | GOIZUETA

2017an sortu zenuten Nafarroako Brigada...

Bai, munduko herritar garen heinean, bizi dugun egoera larriari, eta bereziki, Europar Batasunak jartzen dizkigun neurriei, aurre egiteko asmoz elkartu ginen. Lau lan ildo ditugu: klase elkartasunaren baloreak normaltzea, herrien arteko elkartasuna sustatuz; errefuxiatu eta migratzaileen kanpamenduetan laguntza eskaintzea; migrazio ez-okzidentalaren kausa errealei erreparatzea eta gatazka geopolitikoaren analisi kritikoa egitea; eta Greziako zein ekialde hurbileko herrialdeen errealitatearen harira go-goeta eragitea. Lan ildo horiek jorratzera bidean, Askapena eta Zabaldiren laguntzaz, formakuntza saioetan murgildu ginen.

2017ko abuztuan Kiosean izan zineten...

Joan aurretik aipaturiko formakuntza saioetan ibilginen, buru-belarri. Eta FEOX taldearen akreditazioarekin sartu ginen errefuxiatuen eremuan. Aitzitik, askatasunez jarduteko aukera luzatu ziguten eta hori baliatuz hainbat jarduera bideratu genituen: jantzien sailkapena eta banaketa, osasun psikoemotionala hobetzeko aisialdirako ekintzak (igeriketa saioak, futbola, mahai-jokoak, tailerrak, eskula-



UTZITAKO ARGAZKIA

Khaled al-Bourdani siriarra eta Lucia Etxebarria goizuetarra, Soudan iheslarien esparruan.

nak, dantzak, pintura, as-tean hirutan zinema...), osasun arreta (sendatze-lanak txandaka eta ospitalera garraioak, adibidez), ahots ondarea (migratzaile eta bertakoen ahotsa entzutera emateko), emakumeen proiektua (emakumeen presentzia areagotzeko, berentzat soilik izanen ziren espazioak sortu genituen). Bien bitartean, facebook bidez, han egiten genituen jarduerak ikusarazi eta egoera latz horiek salatzen genituen.

Nolako esperientzia izan zen?

Gure begiekin errealitatea ikusteak lanean jarraitzeko indarra eman digu. Jatorri askotako jendea,

ESKU ZABALIK
«Gaiaren inguruan interesa duen edo informazio gehiago nahi duen edonor Facebook bidez jar daiteke harremanetan. Esku zabalik hartuko dugu».

KARTZELAK
«Iheslarien esparruak deritze baina gure ustez kartzelak dira: etsipena, oinazea, gaitz mentalak... Askatasunak muga zurrunik ditu, hiritik urrun daude, ez dakite noiz aterako diren, ez eta biharamunera ailegatu diren ere».

hainbat arrazoi migrazioaren iturburuan..., testuinguru sozio-politikoan kokatu gabe nekez ulertuko ditugunak. Kausa nabariaren artean gosea eta gerra, baina baita erlijioak, emakume izateko edo desioak bultzatuak ere. Giza eskubideetan eskubidea bermatua izanagatik, migrazio-fluxua mendebaldeko herrialdeen interesen arabera kontrolatzen dela ikusi ahal izan dugu. Horren lekuko dira Europar Batasunaren migrazio politikak, baldintza jasangaitzak, harresiak... Europak ateak ixteaz gainera, europargobernuek hartzen ez duten ardura GKEek eta beste erakunde txiki ba-

ztuek hartzen dute. Laguntza hori, ordea, ez da denen oinarritzko behar azetzerara iristen.

Laguntzarik izan duzue?

Iruña Ciudad de Acogida (ICA), Zabaldi, Askapena eta Ongi Etorri Errefuxiatuak elkarten laguntza jaso dugu, bai formakuntza jasotzeko, bai eta ekitaldiak elkarlanean antolatzeko ere.

Nolako da errefuxiatuen egungo egoera?

Herrialde inperialistek interes ekonomikoa tarteko, nazio batzuen errealitatea suntsitzen eta kontrolatzen diharduteenez, migrazioa, maiz, behartua izaten da. Oinarria aldatu ezean, migrazio masiboa geldiezina izanen da. Alferrikakoak izanen dira fluxua gelditzeko saiakerak. Erabaki handi bezain konplexuak hartu behar litzukete gai hori jorratzeko.

Etorkizunera begira baduzue aurreikuspenik?

2018ra begira hemen lanean jarraitzea dugu asmo, bertatik bertara bizitako errealitatea hitzaldi eta ekitaldien bidez ikusarazi nahi dugu. Halaber, ahots ondarearen bidez elkarrizketa sakonak bildu genituen, errefuxiatuen inguruko iritzia jasoz... eta hortik eratorritako informazioa landuz lan politikoa eta sentsibilizazioa egin nahi dugu. Dokumentala martxan da dagoeneko...

HAUR MOTXILADUNAK → JOANA HARANBURU, TXISTOR PRESOAREN ALABA

«Egiazki ez dakit egunen batean bakean utziko gaituzten»

Zortzi urte dituenetik errepidean bueltaka dabil senperrara

Eskualdeko bartz neska-mutikok espetxean dute aita eta ehunka eta ehunka kilometro egin behar izaten dituzte aitarekin egon ahal izateko.

Urte luzez ume motxiladuna izandua da Senpereko Joana Haranburu, eta 36 urterekin, oraindik ere, errepidean harat eta honat segitzen du.

G. PIKABEA

Lizar, Aiur, Jare, Arri eta Aritz. Sei urte ditu zaharrenak eta urtea egin gabea gazteenak. Bartz haur dira, aita ehunka eta ehunka kilometrora duten bartz haur. Eskualdeko motxiladun umeak dira, euskal presoan seme-

alabak, eta guztiek aita kartzelan dute.

Ez dira kasu bakanak. Sarek dioenez, Euskal Herriko 113 haur eta nerabe gurasoetako bat preso dute gatazka politikoa-rekin lotutako auziengatik. Joan den azaroan, Sarek haien egoeraren

inguruko txostena egin zuen eta horren arabera, haur horiek beldurra, nekea, ezinegona, antsietatea, inpotentzia... eta bertzelako ondorio psikologikoak izateko aukera haundiagoa dute. Horrez gain, euren adinekoak baino autonomoak izatera behartuak dira.

Urte luzez motxiladun haurra izandakoa da Senpereko Joana Haranburu, Frederic Haranburu Txistorren alaba. Zortzi urte zituenetik dabil errepidean bueltaka eta edeki daki zer den haur motxiladuna izatea: «nire bizia beti horrelakoa izan da, nik ez dakit zer den egunerokoa aita bat izatea», dio. Gaur egun, 36 urte ditu, baina oraindik ere kilometroak eta kilometroak egiten ditu Lannemezango espetxean duen aita ikustera joateko, ia 400 kilometro aldi oro: «bat ohitu egiten da haur motxiladun izatera».

HAURTZAROA

Duela 28 urte atxilotu zioten aita, baina ez ditu atzenduak une haiek: «izebaren etxean lo egin eta ikastolara iritsi nintzenean, kide batek aita kartzelara eramane zutela erran zidan. Garai hartan preso gutti ziren, eta ez nuen sobera ulertu zergatik erran zidan». Gau hartan amak azaldu zion gertatutakoa: «bizpahiru egun luze haietan gauero Baionara joan ginen elgarretaratzeetara. Gaue-ro, aita etxe gorri hartatik aterako zela pentsatzen nuen».

'MOMENTU GOGORRAK'

28 urtez «momentu gogor ainitz» pasatu ditu Joanak, bai berak eta bai bere ingurukoek ere. Halaxe aitortu digu. Hamar urte arte, Parisko Fleury Merogis kartzelan eduki zuten bere aita eta Joanak 1.550 kilometro inguru egin behar izaten zituen berekin egoteko. Bertze euskal presoan senideekin autobus batean joaten zen bisitara: «21:00etan autobusa hartu eta Parisera abia-

tzen ginen». Aipatu digunez, «lehen urteetan, autobusa kasik hutsik izaten zen, eta urteekin, bete-beterik izaten zen». Goizaldean, 05:00 aldera ailegatzen ziren Parisera, eta bisita 08:10ean izaten zuten. «Dena ongi joanez gero, kartzelatik gure izenak erratan zituzten, eta sartzen ginenean, kontrolak pasatu eta berri-berri esperoan egon behar izaten genuen, ordu erdiko bisita bat egiteko». Berreirudiko, «tarte labur horretan, zaila zen harreman bat lortzea; nik aita ezagutzea eta aitak bere alaba ezagutzea». Eguna Parisen pasatu behar izaten zuten eta «egun luze eta neketsua» izaten zela dio. 04:00etan ailegatzen ziren Baionara.

Aita ikusi gabeko bidaiak ere egindakoa da: «zenbat aldiz joan ote ginen Parisera, eta bisitarik gabe gelditu. Bisiten zerrendan gure izenik ez zegoelako edo aita epailearengana edo medikua-rengana eramane zutela-ko, bisitarik eta berri-berri gabe etxera itzuli behar izaten genuen».



UTZITAKO ARGAZKIA

Joana Haranburu haurra zela –eskuinean, arrosez– eta giblean bere ama Parisen, bertze presoan senideekin Parisera egindako bisita batean.

Eskualdeko haur motxiladunak

- **Aritz**, urtea egin gabea. Cordobako espetxean (Espainia) du aita. 1.740 kilometro egiten ditu aita ikusteko.
- **Jare**, 4 urte. Reaud Sud Francilienengo kartzelan (Frantzia) du aita. 1.640 kilometroko bidaia egiten du aita ikusteko.
- **Lizar eta Arri**, 6 eta 3 urte. Lannemezanan (Frantzia) dute aita. 450 kilometro egiten dituzte aita ikusteko.
- **Aiur**, 5 urte. Logroñon (Espainia) du aita. 330 kilometroko bidaia egiten du aitarekin egoteko.

Munduari bueltaka

Ttiki-ttikitatik kilometroak eta kilometroak egiten dituzte haur motxiladunak. Jarek, adibidez, lau urterekin, 86.626 kilometro egin ditu aita ikusteko bidaie-tan. Bertzela erranda, munduari bi itzuli pasatuak eman dizkio. 2017an 11 bisita egin zizkion aitari, eta horietan 18.348 kilometro pasatu zituen bidean; etxetik kanpo 713 ordu.



NERABEZAROA

Nerabea zela, «une hunkigarriak» bizitutakoa da: «aita eta amaren eritasunei ahizpak eta biok bakarrik egin behar izandu genien aitzin. Aitak ez du anai-arrebarik eta burmuinean entzefalopatia izandu zuenean, ahizpa eta biok moldatu behar izandu genuen». Ospitalera joaten omen ziren aitarekin egoteko: «aitari musu bat emateko, hainbat poliziaren aitzinean bakarrik egoten ginen».

Amatxi hilzitzaienekoa ere gogoan ditu: «ama autoz joan zen aitari bere ama galdu zuela erratera, eta amatxiren heriotza ahizpak eta biok kudeatu behar izandu genuen. Bere semea ondolan izateko ametsa bete gabe joan zen amatxi».

Badira aitarekin partekatatu ezin izandu dituzten bertzelako momentuak ere bai: «haurrak izan ditugularik, guretzat hain pozgarriak diren momentu horiek ezin izandu ditugu aitarekin bizitu».

Harat eta honat dabil haurra zenetik, baina erran digunez, «haurtzaroen, ez nuen aita espetxean izatearen zama handia sentitu. Haurren inozentziarekin pasatu nuen. Aita faltan botatzen nuen, dudarik gabe, baina gaingitu nuen». Aitzitik, nerabezaroen aitaren hutsa «bortitzagoa» izan zen beretzat. «Bisitak «biziki laburrak» egiten zitzaizkiola dio: «batzuetan bisitara ailegatu eta aitak, aitaren lana eginez, ikastolako notak-edo aipatzen zituen. Nik, ordea, hainbat gauza erran eta galdetu nahi izaten nizekion, baina ordurako ordu erdia finitua izaten zen. Frustrazio horrekin itzultzen nintzen etxera». Gutunek frustrazio hori gainditzen lagundu zitoten; «beharrak gutunei», dio. «Ezin da pentsatu zen bat paper puska hori ikusten dugun postontzian,



UTZITAKO ARGAZKIA

Joana Haranburu ezkerrean, aitarekin, bikotekidearekin eta bi semeekin, espetxera egindako bisita batean.

eta zeinen zoriontsu egiten gaituzten».

28 URTEZ HIRU HILABETE

Gaur egun, hurbilago dute aita: «kasik pozik izaten ahalko ginateteke bi orduko bidea dugulako, eta bisitak luzeak direlako». Baina ezin du nekea ukatu: «28 urtez hori izandu da gure bizia, hilabetero-hilabetero bisitak egin behar izandu ditugu, eta nahi ditugu». Gehiago ere kontatu digu: «28 urteetako bisita ordu guztiak lotzen badituzte, gehienez hiru hilabetez ikusi dut aita».

Bere lanagatik hilabetean bi asteburu omen ditu libre, eta bat bisitara joateko probesten du. Gero eta zailagoa egiten zaiola aitortu digu: «nire haurrei nik bizitu dudana biziarazten ari naiz, eta

nire mutil-lagunari ere bai. Ama bisita horiek antolatzen nekatzen ari dela ikusten dut, gero eta zailagoa baita bisitetako txandak betetzea».

INGURUAREN BABESA

Inguruko babesa «urteekin okertzen» ari dela ere azaldu digu: «gure herritik ez du inoiz bisitarik izandu. Aitaren lagun batzuk urtean behin edo bitan joaten dira, bai-

BABESA

«Inguruko babesa urteekin okertzen ari da. Lagun batzuk urtean behin edo bitan joaten dira, baina jendea denborarekin nekatu egin da».

Joana HARANBURU
Txistor Haranbururen alaba

baino gehiago mobilizatu behar du jendeak presoen sustengatzeko, bakoitzak bere ahaltzen araberaren, egunero antolatzen diren ekitaldietan. Gure lanetik lortuko dugu lortuko duguna».

BIZI OSORAKO ZIGORRA

Bizi osorako zigorra du Txitorrek, eta Joana rendako hori «hil arteko zigorra da, amaierarik gabea, su ttipian». Horixe egiten zaio «gogorrena»: «guk ez dugu eperik. Espainiar Estatuan atxilotu izatera, 30 urteko zigorra izanen luke. Baina Frantziar Estatuan ez du mugarik, eta badakigu egunen batean espesketik ateratzen bada, egoerarik hobereanean, etxean izanen duela kartzela, eskumutur-elektronikoarekin eta gehienez etxetik 50 metrotara ateratzen ahalko delako. Egiazki ez dakit egunen batean bakan utziko gaituzten».

EZ DUTE AMORE EMANEN

Nekea onartu digu, baita «aita eta amarentzat bertzelako bizia amesten» duela ere, bertzeak bertze, «diru arazorik gabekoa». Izan ere, «ama bakarrik izandu da gure haurtzarotik gaur egunera arte dena kudeatzeko. Momentu gogorrek bizitu ditu, gastu handiak bisitetara joateko, gure ikasketak ordaintzeko, etxea kudeatzeko...». Horren harira, nerabezaroen «errudun» sentitu izandu dela erran digu, «ezin lagunduz». Baina gainerakoan, garbi du: «hiltzen ez duenak indartu egiten du. Bide hori hartzea erabaki dugu, ez dugu amore emanen, beti hor egonen gara sustengua emateko». Ez du galdu itxaropena, «zangoak lurrean» dituela aitortu badigu ere: «egunerokoan bizi gara, gerokoak gero. Aita etxean, nire besotetan izan arte, ez du ilusiorik izan nahi».



Nire txanda
Maite BIDARTE

Sanferminetako txupinazoa

UPNk egindako eskari batek tripak nahastu dizkit. Operación Triunfo saioan izar bihurtu den Amaia nafarra proposatu dute Iruñeko sanferminetako txupinazoa botatzeko. Aitortuko dizuet, hasieran nahi gabe eta gero nahita jarraitu dudala Amaia. Ikaragarri ongi kantatzen du eta gainera, zer demontre, telebistan dagoen itxurakeria kutrearekin, eskertu ditut bere naturaltasuna eta inozentzia. Baina txupinazoa botatzea? Iruñeko aldaketaren Udalak erabaki zuenean txupinazoa herritarrek botatzea populismoa leporatu zion UPNk. Zer da ba Amaiaen proposamena hiperpopulismoa ez bada? Hamaika gogoratzen zaizkit soraurenekoaren aitzinetik uztailearen 6an besta pizteko. Nik, aurtan, SF 78 gogoan plataformako kideak ikusi nahiko nituzke balkoian. Amaiak nahi badu, abestu diezaiola kantu bat Germani udaletxeko balkoitik, eta gero zabal dezala bere instagramek jabetu daitezen bere 467 mila jarraitzaileak zer gertatu zen Iruñeko sanferminetan duela 40 urte.

Ezpala

Aitor AROTZENA

Torturak eta tratu txarrak

Europak belarritik tiraldia egin die Espainiako Auzitegi Gorenari eta Gobernuari. Portu eta Sarasola lesakarren auzian tratu txarrak izan zirela ebazti du. Isuna ere ordaindu beharko du Gobernuak, baina halere harro: 'tratu txarrak izan dira eta ez torturak' diote ozenki. Eta gainera, 'haiek gehiago zor dutenez, hortik deskontatuko diegu isuneko dirua'. Onak gaude ardurak eskatzen hasteko.

Nabarmentzekoak



Leire BARAIBAR
Aresoko kirolaria

Berastegin egin den Negu Trail 16km.ko lasterketaren lehenbiziko edizioan bigarren postua lortu zuen. Elurrak probaren zailtasuna areagotu arren, maila bikaina erakutsi zuen.



Asier IRIARTE
Igantzioko La Villa itxia

2015eko uztailearen 17an hasi zuen bere ibilbidea Igantzioko Herriko Etxeko ostatuan eta otsailaren 4an izan zuen azken eguna. Despedida gisara herritarrak berendura gonbidatu zituen.



Txetx ETCHEVERRY
SPUCeko presidente

Senperen hainbat kirol eta kultur talde biltzen dituen SPUC elkarteak (800 kide ditu aruten) mende erdia bete du eta ospakizun handi bat antolatzeke xedearekin batzordea osatu dute.

Atzera begira → 2008-II-28 • TTIPI-TTAPA 465. zk



Eskualdeko gizarte erakundeak boluntario sarea hedatu nahizik

Bizitzak baditu oraindik ezagutzen ez dituzun bideak. Etorri gurekin! Ilolepean Eskualdeko Boluntariotza Sarea eratu zuten duela hamar urte eskualdeko zortzi gizarte erakundeak: Xauli, Sahararen aldeko elkartasun taldea, Aspace, Bidelagun, Elkarrizan, Cáritas, Anfas eta Dizdira-Anasaps elkarteek bat egin zuten boluntarioak lortzeko kanpaina hartan. Marian Biurraena, Elkarrizan elkarreko koordinatzaileak Ttipi-Ttapan aipatu zion bezala, «garrantzitsua ez da zenbat denbora eskaintzen den, kontua gogoia izan eta laguntzea da. Norberak erabakiko du zenbat denbora eskaini, baina betetzen zaituen lana da».

ttipi-ttapa

Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 635458 • Faxe (+34) 948 635457 • whatsapp: 744 484361 • info@ttipi.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena Erredakzioa Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola, Nerea Bazterrika Publizitatea Usua Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre Berriemaileak Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre, Koro Irtzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Iruñe Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Martin Bertiz, Mattin Larraalde, Juan Mari Barriola, Iñigo Imaz, Marga Erdozain, Maitane Maritorea, Arantxa Iturralde, Jaione Ariztegi, Jaione Mindegia, Nerea Mortalena, Pierre Bastres

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Malerrekako Zerbitzuen Mank.

2018ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	37€
Leitza	24€
Hego Euskal Herria	43€
Ipar Euskal Herria, Europa	77€
Amerika eta Australia	130€

Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra



Bortzietako Euskara
Mankomunitateak
diruz lagundua



Kolaborazioak

Oporrak

Esteban IRUSTA MALLEA

Garai baten gutxi izaten zituzten oporrak. Gutxi horiek, aberatsak, dirudunak ziren. Beste herritar guztientzat opor hitza guztiz ezezeguna zen. Ez zitzairen burutik ere pasatzen oporretarako eskubiderik zutenik. Lehenbiziko oporrak, langile frantziarrek izan zituzten 1936an, Leon Blum gobernuburuaren garaian. Urte batzuk beranduago, Europako beste lurraldeetan, eta beti langileen borrokari esker, lortu zuten eskubide honetaz disfrutatzea. Baina hasieran, egun gutxi batzuk izaten ziren, eta lantoki eta lurralde bakoitzaren arabera, opor egunak gehitzen joan ziren. Gaur egun ere, langileen lan baldintzak desberdinak dira munduan zehar, baina orokorrean oporrak onartuak daude toki gehienetan. Gehienbat, industria enpresetako langile eta lanpostu publikoei buruz ari gara. Zeren, baziren beste langile mota asko, garai baten gehienak, oporrik ez zituztenak. Abeltzainek eta lurra landuz bizi zirenek ez zuten opor ordaindurik izaten; ez lehen, ez orain ere. Gizakiak, bere kasa, egun libreak, ordaindu gabeak, beti hartu izan ditu. Elizak beti ospatu ditu bere jaiegunak; beste jaiegun ospetsuak *feria* egunak ziren; baserritarrak bere produktuak eta abereak salgai azaltzen zituztenak. Egund garrantzitsuak izaten ziren. Gaur egun egiten diren *feria* egunek ez daukate zerikusirik lehenago egiten zirenekin. Gaurkoak, gehienbat, tradizioari jarraitzeagatik egiten dira. Sektore berezi bat ikastetxeetako irakasle eta ikasleek osatzen zuten. Ikasleek sarritan uzten zioten eskolara joateari, nolabait, etxeko lanetan aritzeko, eta egun librean zer esanik ez. Irakasleek, berriz, beste zerbaitetan lan egin beharra izaten zuten etxeko ekonomian laguntzeko. Eskola gabeko egunak bai, baina opor usainik ez zutenak, beste zereginetan aritu behar zutelako. Gaurko opor garaietara etorri, hasieran, egun horiek herrian bertan igarotzen ziren. Askok, naturazaleak, inguruko mendietan egiten zituzten bere etxola edo etxetxoak, bertan lagunekin, egun batzuk naturaz gozatzeko. Itsasertzeko herritarrak, bertako hondartzetara joatea samurrago zuten, eta modan jarri zenez, inguruko herritarrak ere bertara joaten hasi ziren gaur egun arte, batez ere trena baldin bazen, zeren gehienek ez zuten autorik. Autoak ugaritu zirenean, euskaldun askorentzat, modan jarri ziren Errioxa eta Kantabria, bertan bigarren etxebizitzaz jabetuz. Ondoren, urte gutxitan, egoera asko aldatu da. Gaur egun, ez dira gutxi hegazkinez, munduko bazter guztietara joaten direnak. Eta alderantziz, urrutiko jendea geurera datorrena. Eta hau, askorentzat, fenomeno berria dela iduritzen bazaio ere, ez da hain berria. Euskal Herriara, uda pasatzera etortzen ziren, bai Frantziako errege-erreginak, baita Espainiakoak ere. Miarritze eta Donostia ziren toki estimatuena beraietzat, orduan ez zegoelako aire-girogailurik, eta Euskal Herriko klima gustuko zuten. Gaur egun, herritar arruntentzat ere, Euskal Herria guna turistiko bihurtu da.

FIARE, bertze banketxe bat gehiago?

BIDAZI ELKARTEA

Fiare Banku Etikoa izeneko banketxea, aurrezki eta kreditu kooperatiba bat da. Bertze edozein banketxetan bezala, nominak helbideratu, transferentziak, txartelaren bidez ordaindu eta gisako beste eragiketak egin daitezke. Diferentzia bakarra, eragiketak interneten bidez egiten direla da (toki aunitzetan bulegorik ez dagoelako).



Bere jarduerak, honako helburu bikoitzari erantzun nahi dio:

1. Gizarte-eragin positiboa izan dezaketen jarduerak ekonomikoak finantzatu. Hala nola, osasun-gizarte zerbitzuak, etxebizitza sozialak, energia berriztagarriak, gertuko nekazaritza, hezkuntza eta baloreen eraldaketa, pertsonen gizarteratze, ipar-hegoa kooperazioa eta bidezko merkataritza.
2. Aurrezle eta inbertitzaileei bazkideak izateko aukera eskaintzen zaie. Bazkideek kontrolatzen dute bankuaren jarduerak, modu deszentralizatuta eta asanblearioaren bitartez. Era honetan, bazkideek erabakitzen dute zein proiektuak finantzatu. Bazkide bakoitzak boto bakar bat duenez (independenteki zenbat dirua ipini duen) kontrola korporazio edo bazkide ahaltsuen eskuetan erortzea ekiditen da.

Une honetan, Fiarek 2.400 bazkide eta 5.400 bezero dauka Estatu osoan. Kapital soziala 3,1 milioi eurokoa da. Aipatzekoa da badaudela kide egiten diren udalak. Horien artean, Burlata, Antsoain, Berriozar eta Atarrabia Nafarroan eta gure inguruan Donostia, Errenteria eta Hernani.

Fiarek finantzatu dituen proiektuak eta enpresak «gizarte eta elkartasunezko ekonomia» esparruan kokatzen direnak dira. Horra hor gure inguruan Fiarek finantzatu dituen proiektu batzuk: Goiener (Energia Berriztagarrien Sorkuntza eta Erosle Kooperatiba), Emaus Gizarte Fundazioa, EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna), Hegoak elkarte eta hainbeste fundazio eta kooperatiba. Fiarek finantzatu duen proiektuen zerrenda publikoa egiten du. Ondoko orrian beha daitezke: <https://www.fiarebancaetica.coop/conmidinero>

Bidaziren gisan, Fiarek ere, solidarioa, ekologikoa, arduratsua, jendearengandik hurbila eta auzolanean oinarritzen den mundua bultzatzen du. Azken finean «gizarte eta elkartasunezko ekonomian» oinarritzen den gizarte berri bat.

«Fiarek finantzatu dituen proiektuak eta enpresak 'gizarte eta elkartasunezko ekonomia' esparruan kokatzen direnak dira»



Irakurleak mintzo

Gerrarik gabe, harresirik gabe

Iruritako eskolako
5. eta 6. maila

Munduko pertsona maiteak:

Iruritako eskolako 5. eta 6. mailako ikasleak gara.

Gure desadostasuna adierazteko eta irtenbide bat bilatzeko idazten dugu. Izan ere, munduko pertsona guztiek eskubide guztiak izatea nahi dugu eta hau ez da betetzen ari. Orain dela 2 urte Europar Batasunak erabaki bat hartu zuen: herrialde bakoitzak migratzaile kantitate bat hartuko zuela esan zuen. Zoritxarrez 2 urte pasa eta gero ez da bete, adibidez, Espainiak %11,4 migratzaile hartu ditu.

Egoera horren aurrean migratzaile gehiago ekartzea, arma gehiago ez saltzea eta eskubide berak izatea eskatzen dugu. Gerrarik gabe, harresirik gabe, denak eskubide guztiak izatea. Gure helburua munduan gertatzen ari den egoera honetaz konturaraztea da eta munduko gobernuak guztion artean salatzea.

Espero dugu gutun honen bidez guztiok zerbait ikastea eta mundu libre bat sortzea.



UTZITAKO ARGAZKIA

Mugak irekitzeko eskaria egin dute Iruritako eskolako ikasleek.

Ikasleak aske hezi nahi ditugu

[Iñaki BELTRAN GALLEGO](#), [Gorane ARTIEDA APEZTEGIA](#), [Iñaki SANCHEZ LAFUENTE](#), [Manuel MELLADO BUENO](#), [Kristina FERNANDEZ PEREZ \(Mendaur DBHI\)](#), [Elizondo Lanbide Eskola IIP eta Lekaroz BHilko klaustroak](#)

Urtarrilaren 14an Baztango UPNko zinegotzi batek *Diario de Navarra*-n idatzitako *Sí se adoctrina* artikulua harira, argi utzi nahi dugu guk ez dugula inor adoktrinatzeko. Mingarria zaigu joko politiko interesatuen baitan sortutako kalapita faltsuetan, geure burua enegarren aldiz zikindua

ikustea.

Ikasturte hasmentan ikasleei emandako eta gurasoek sinatu eta onartutako programazioan agertu bezala, Lekarozko Euskara Departamentuak ikasle talde bati liburu baten irakurketa proposatu zion. Iduri duenez, liburu ez da artikulua idatzi duenaren eta UPNren gustokoa izan, eta hori aitzaikia hartuta alimalekoak erran ditu aipatutako departamentuaren kontra. Manipulazio eta adoktrinamendu bezalako hitzak erabili dituz arrazoietan eta Euskara eta Literatura mintegiko irakasleen profesionaltasuna zalantzan paratu du. Bertzalde, ez

da ahalke izan irakasle batzuen bizitza pribatua epaitzeko eta zenbait ondorio faltsu ateratzeko.

Gure bailaran, nobela beltzaren suspertzea eman da (H)ilbeltzak azken urteetan antolatu dituen ekintzen ondorioz eta oihartzuna Euskal Herri osorot hedatu da. Oihartzun honen parte izan nahirik, Lekarozko Euskara Departamentuak hiru nobela beltz proposatu zizkien ikasleei leitzeko DBHko maila honetan. Baztango UPNko zinegotzi honen hauetako liburu bat adoktrinatzeko tresna dela adierazi du. Euskara Departamentukideek irakurzaletasuna bul-

katzea dute helburu, eta ez inor adoktrinatzeko.

DBHI, Elizondo Lanbide Eskola IIP eta Lekaroz BHilko klaustroek sendo bezain ozen erran nahi dute, ikastetxearen baitan irakasleok hartzen ditugun erabaki pedagogikoak eta lana, lekuz kanpo, auzitan paratzea onartezina dela.

Berako Mendi Eguna

[Xabier, Loro eta Zubiren familiak \(Bera\)](#)

Urtarrilaren 13an 11 urte bete dira mendiak Xabier, Loro eta Zubigurre artetik eraman zituztenetik. Aurten berriro ere, eta 11. aldiz mendi eguna ospatu da Agerra Mendi Taldea eta Mantalaren eskutik. Eta hau eskertu beharrean gaudu. Eskerrik asko urte guzti hauetan beraien oroitzapena bizirik mantentzeagatik, egun hau gurekin partekatzeagatik, mendian, korrika, animatzen eskaladan, proiektzioan...

Beraiek mendia maite zuten eta mendiaren inguruan egun hau besta bihurtu da... eta horrela jarrai dezala.

Bihotz bihotzez mila esker.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.eus

Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**

Tel.: **948 63 54 58**

Faxa: **948 63 54 57**

Prentsatik bildutakoak



«Gaizki zaudenean ez zara oroitzen aurrekoak onak izan zirenik: orainak balio du. Oinazpiko faszitisarekin, ezin zara entrenatu, eta hori gabezia handia da. Pisuak altxa ditzakezu, baina ezin duzu entrenamendu fisikorik eta pilotaleku lanik egin; hori nabaritu egiten da. Duela aste batzuk barne zola berezi batzuk diseinatu zizkidaten, eta hobera egin dut».

Oinatz BENGOETXEA
Leitzako pilotaria
BERRIA 2018.02.07



«Joarea ez da, hartu eta egin. Zer luzera, zer zabalera eta zer txapa lodiko den... gauza asko ikusi behar dira. Txorakeria dirudi, baina ez da gauza bera 0,8 milimetroko txapa edo 1ekoa. Jendeak ez du ulertzen bi milimetro nahikoa dela joareari soinua aldatzeko. Bada jendea joarea nondik heldu den ere ez dakiena. Horientzat igual-igual da soinua».

Jexux Mari APEZETXEA
Goizuetako joare-egilea
ARGIA 2018.02.11

11 galdera labur

Nor da Ebaristo Telletxea?

Narbarten bizi den Bertizko mutiko bat.

Zein zaletasun dituzu?

Mendira joatea gustatzen zait eta mahai inguruko giro goxoan familia eta lagunetz inguratuta egotea maite dut.

Batean zein bertzean, argazki kamera lagun?

Hala da, duela urte pare bat kamera eder bat oparitu zidaten, eta ordutik harat-honat ibiltzen naiz.

Argazkien edertasuna ez dago beti argazkilariares esku...

Argiak, enfokeak... bat egitea zaila izaten da, aukera hori segundu batekoa da maiz.

Animaliei ateratzea are zailagoa izanen da, ezta?

Ezin da nondik nora joko duten aurreikusiri, eta beraz, aukeraren bat nahi izatekotan mugimenduei aurre hartzea bertzetik ez dago. Batzuetan ongi ateratzen da, bertzeetan ez!

Argazkien itzalpean...

Momentu eta leku jakinen orotzapenei irmo eusteko aukera ezkututzen da.

Kameraren aitzinean edo gibelean?

Gibelean, dudarik gabe, aunitzez hobe moldatzen naiz.

Zer du Narbartek bertze herriek ez dutena?

Berezitasunik izan gabe, herritarrok guttirik konformatzeko eta gustora egoteko dugun gaitasuna.

Inguruko xokorik politena?

Bertizeko bazterrak.

Zein da zoriontsu izateko sekretua?

Gezurrik gabeko mundu batean, norberak gustuko duena egitearekin, sekretuak soberan daude!

Amets bat?

Ametsak egi bihurtzea.



Ebaristo TELLETXEA → Narbarteko gaztea

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 · BERA

KATEA BIKE
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA.
Eta orain, GIMNASTIKA ETA FITNESS MAKINAK, bizikleta estatikoak lasterketako zintak
2. eskuko bizikletak
Kanttonberri 1, BERA 948 631 218
kateabera@telefonica.net
ORBEA CONDA SCOTT BH TREK

LARRALDEA eta LINDDURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak
Dolarea
Eskualdean egindako sagardoa
LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Zalain Auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.info

BERA

KULTURA → MARTXOAREN 3AN KULTUR ETXEAN

Nafarroako Haur eta Gaztetxo Kantarien Jaialdiko lehen saioa herrian



UTZITAKO ARGAZKIA

Bardoak lehiaketako bigarren fasean izanen da Ibardin

Bardoak 2018 bertso ekimeneko lehen saioa herriko Katakua ostatuan egin zuten. Argazkian ageri den herriko Ibardin: *Hiru ta lau dira zazpi* taldea (Patxi Castillo, Julen Zelaieta eta Aitor Elexpuru bertsolariak, Ainhoa Larretxea eta Ekhiñe Zapiain aurkezleak eta Jokin Pinatxo eta Estitxu Uranga antolatzaileak) nagusitu zitzaion *Sakana Zirt* taldeari. Talde honek otsailaren 10ean izan zuen bigarren saioa Barañainen eta han ere etxeko *Patioko banda* taldeari nagusitu zitzaion, bigarren faserako txartela lortuz.

Bera, Baztan, Sunbilla, Lesaka, Arano eta Malerrekako taldeak espero dituzte, bertzeak bertze

nen eginen dute apirilaren 21ean.

Berako saioan esku-aldeko haur eta gaztetxoak ariko dira kantari. Alde batetik, Baztan Ikastolako Lehen Hezkuntzako 19 neska-mutikok *Denok zu* kantatuko dute. Horiez gain, Sunbillatik bi talde joanen dira Berara: Lehen Hezkuntzako 2. mailatik 5. mailara bitarteko 16 kantarik *Arraroa Noski* abestuko dute eta 5. eta 6. mailako bertze 14 kantarik *Geri Mugimendua* izenekoa. Berako

Jesusen Bihotza ikas-tetxekoek ere kantatuko dute, baita Mendaur Trikitixa eskolakoek ere. Bertzalde, Lesakako Tantarumairu Ikastolako Lehen Hezkuntzako 19 ikaslek *Agure zaharra* kantatuko dute eta Arantotik ere joanen dira Be-

rara abestera.

Berako saioa Kultur Etxean eginen dute eta 18:00etan hasiko da. Horren ondotik, martxoaren 10ean Antsoaingo antzokian izanen da bigarren saioa, martxoaren 17an Altsasuko lortia Kulturgunean hiru-

garrena eta Oibarko Alvaro Aldunate entzutegian laugarrena. Herri guztietako partaideak bilduko dituen jaialdi nagusia, berri, apirilaren 21ean eginen dute Barañaingo entzurgela. Saio guztiak 18:00etan hasiko dira.

TTIPI-TTAPA

Ate joka dugu Nafarroako Haur eta Gaztetxo Kantarien Jaialdia. Martxoaren 3an hasiko da Beran, eta martxoan lau saio egin ondotik, jaialdi nagusia Barañai-

948 630 786
Altzate, 21 • BERA

Kanttonberri 12 • BERA
T. /Fax: 948 630 018

HARATEGIA / URDAITEGIA
Eñaut & Nekane

ANDONI
LASAGA APEZTEGUIA

- ▶ TDT instalazioak
- ▶ TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- ▶ Instalazio individualak eta kolektiboak
- ▶ Satelite bidezko interneta
- ▶ Internet konexio simetrikoko ultralastera

T. 637 40 86 40 • 31780 BERA • andonimabako@gmail.com

Arnedo Inda SL ASEGURUA
Allianz

DONEZTEBE
Parrokia kalea, 21 | T. 948 450 266

BERA
Eztegara pasealekua, 26 | T. 948 625 259

691 384 651 (WhatsApp)
arnedo.ind@allianzmed.es
arnedo-inda.allianz.es

ESKAITZA BEREZIA

Etxeko aseguru poliza berrietarako

%15eko

deskontua estaldura berriekin

- Testamentu digitala
- Filtrazioak
- Hodiak libratzea
- Kortozirkuituak
- Aholkularitza juridikoa
- Aztarna digitalak ezabatzea
- Bidaia asistentzia, etab.

Jarri gurekin harremanetan eta aurrekontua bidaliko dizugu inolako konpromisorik gabe

KULTURA → OTSAILAREN 23AN (17:30)

Joskintza eta literatura tailerra prest ortziralerako

Marga Matxiarenaren eskutik eginen dute herri liburutegian

TTIPI-TTAPA

Istoriak josten izenburupean, joskintza eta literatura tailerra eskainiko du Marga Matxiarenaren otsailaren 23an, ortziralean 17:30ean hasita Herri Liburutegian. Bi orduko saioa izan da, 7 eta 12 urte arteko neska-mutikoei zuzendua eta gehienez ere 20 parte-hartzaile onartu dituzte.

Musikari tikiak tailerra

Isidro Fagoaga Udala Musika Eskolak, Udalaren laguntzaz, Musikari Tikiak tailerra antolatu du. Musika, joko eta esperimentazioaren bidez, gorputz eta ahoz jabetzea du helburu. 2014an jaiotako haurrei zuzenduriko 50 minutuko lau saio antolatu dituzte: martxoak 2, 9, 16 eta 23rako. Ortzirale arratsaldetan iza-

nen dira saioak eta ordutegia taldearen beharren arabera egokituko dute. Interesdunek, otsailaren 21era arte eman dezakete izena 948 012012 telefonora deituz. 35 euro ordaindu beharko dira, telefonoz adierazitako kontu korronte zenbakian.

Mairu antzerki taldearen 'Txoriak eta zauriak'

Mairu Antzerki Taldearen *Txoriak eta zauriak* antzezlanak ikusgai izanen da otsailaren 24an, larunbatean 19:00etan Kultur Etxean. Sarrera 3 euro gostatoko da.

Agerra Mendi Taldea Goizuetara

Agerra Mendi Taldeak urtero antolatzen duen Bera-Goizueta mendia ibilaldia martxoaren 4an eginen dute. Otsailaren 28a baino lehen eman behar da izena elkartearen edo 948 630362 telefonora deituz (gauetz).

Agerratik (07:00etan abiatuko dira mendizaleak) eta Agiñatik oinez



UTZITAKO ARGAZKIA

San Jose Zahar-Etxekoak Ibardingo Mendikon gonbidatuak

San Jose Zahar-Etxeko hamabortz lagun Ibardingo Mendiko Sagardotegira joan ziren otsailaren 5ean, Inaxio Irazoki nagusiak gonbidatuta. Bazkari ederra izan zuten eta edateko, berriz, sagardo botilak mahaian izanagatik, ez zuten txotx egiteko aukerarik galdu. Harrera bikaina eta jakien gozotasuna tarteko, heldu den urtean errepikatzeko irrikitan daude. Hori horrela, eskerrak eman nahi dizkiote San Jose Zahar-Etxeko bizilagunek Inaxio Irazokiri.



UTZITAKO ARGAZKIAK

42 Inude eta Artzai bikotek dantza egin dute eurpean

Kaldereroen etorrerarekin hasita, giro ederrean joan dia inauteriak: Musika Eskolakoen kontzertua, Ortzegun Gizeneko *Zingar-Arrautze*, inauterietako igandeko Inude eta Artzaian dantzak eta kantuak eurpean (42 bikote atera ziren, denera 130 lagun konpartsan) eta asteleheneko baserrietako puska-biltzea, karrozak eta mozorroak (hauek bai, eguzkipean) eta *Batuklang* batukadarekin bukatu ziren.

(08:15ean autobusa hartu Agerran eta Agiñaraino hurbilduko dituzte mendizaleak) edo Goi-

zuetara autobusez (11:00etan abiatuta elkarteak) egin daiteke bidea eta Umore Ona el-

kartean bazkalduko dute denek. Bertan ordainduko da bai bazkaria, baita autobusa ere.

MARITX

• Ingeniaritza elektrikoa • Boletín industria
• Proiektu elektrikokoak • Instalazio elektrikokoak

Legia, 23 - BERA | T. (0034) 636 617 450

xuga

tel. 948 631 519
www.xugabera.com
www.facebook.com/xugabera

FRANDONEA, s.l.
FABRICA DE BARSABAZIAK

BILTEGIA 948 630 102
ANDER 687 736 929
Bidasoa, 76 - atea 21-22
31780 BERA

LESAKA



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Iratxe Etxarte, elizako organoa jotzen

KULTURA → OTSAILAREN 24AN (19:00)

Elizako organoa zaharberritzen laguntzeko kontzertua antolatu dute

Donostiako Goratzar abesbatzak kantatu eta Loreto Aramendik joko du organoa

Aitor AROTZENA

Joan den urte bukaietan, egoera kaskarrean dagoen San Martin elizako organoa zaharberritzen hasteko dirua bilatzeko kontzertua egin zen. Helburu horrekin segitu nahi du aurten ere talde batek (tartean Iratxe Etxarte eta Agustín Arriola organujoleak, Marisol Perez abesbatzako zuzendaria eta Gabi Igarzabal kidea) eta horretarako bertze kontzertu bat antolatu dute otsailaren 24an, larunbatean 19:00etan elizan. Donostiako Goratzar abesbatzak kantatuko du eta Loreto Ara-

mendi organujoleak joko du.

Kultur Intereseko Ondasun izendatua dagoen organo erromantikoa

1891. urtean egin zuten Zaragozako Roqués anaiek eta 1950-51n moldatu zuen Amezua y Ciak.



ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

70 zakozar atera ziren eurpean Inauterietako Igandean

Ortzegun Gizeneko Arraultze-Arraultze eskearekin hasi ziren inauteriak. Larunbat arratseko lehen mozorroak eta igandeko zakozarren ateraldia zapuztu zituen euriak, baina horregatik ez ziren herritarrak etxean gelditu! Lehenik zakozarrikien taldea atera zen trikitalarien laguntzaz eta ondotik, 70 bat zakozarrek egin zuten ohikoa baino ibilbide laburragoa. Tartean, lehen aldiz atera zirenak ere bazeuden. Erraterako, Nobeto Mitxelena 52 urterekin atera zen lehenbizikoz, 16 urteko Lander semearekin (hau ere lehen aldiz). Aspaldian herrian bizi ez den Karlos Ibañez ere 48 urterekin atera zen estreinakoz. Goitarrek eta Fraindarrek ere bere ibilbideak egin zituzten baserri auzoetan eta karrozaren desfile ikusgarria izan zen astelehenean, eguraldi eguzkitsuarekin.

Ba al zenekien

Joan den urteko Nafarroa Oinezekin lotuta, Oinez Basoaren lehen landaketa eta ekitaldia egitekoea zutela igandean Frainen.

OTSAILAREN 13KO EBAZPENA

Igor Porturen eta Mattin Sarasolaren auzian tratu txarrak izan zirela ebatzi du Europako Giza Eskubideen Auzitegiak

A. AROTZENA

Europako Giza Eskubideen Auzitegiak frogatutzat jo ditu Igor Portu eta Mattin Sarasolaren aurkako «tratu txarrak». Otsailaren 13an jakinarazi zuen ebazpena, eta horren arabera, Espainiak Europako Konbentzioaren 3. artikulua urratu du. Hala, Espainiak Estatuak 50.000 euro ordaindu beharko dizkie kalte moralengatik; 30.000 euro Por-

turi eta 20.000 euro Sarasolari.

Bere garaian, Gipuzkoako Auzitegiak frogatutzat eman zuen Igor Portu eta Mattin Sarasola torturatu zituztela, baina Espainiak Auzitegi Gorenak ezezkoa ebatzi zuen. Orain, berriz, Europako Giza Eskubideen Auzitegiak aho batez ebatzi du Espainiak Europako Konbentzioaren 3. artikulua urratu zuela, atxilotutakoek tratu txarra jasan zute-

la adieraziz. Are gehiago, hiru epailek boto partikularra eman dute, gertatutakoa torturatzat jo daitezkeela iritzita, eta ez tratu txar gisa. Horrekin batera, torturak ez ikertu izana leporatu dio.

Hiru hilabete izanen ditu Espainiak Estatuak Estrasburgok ezarri dien zigorra ordaintzeko: 30.000 euro ordaindu beharko dizkio Porturi, eta 20.000 euro Sarasolari.

Bidasoa
GASOLINDEGIA

A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA

24
ORDUZ

Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA · T. 609 446 693

IRU BIDE
Erretegia · Asador

Biturriana, 3 · Lesaka
Tel: 948 637 127

- Lentzeria
- Bainujantziak
- Mertzeria
- Jantzi tipikoak
- Penen blusak

kattogorria
lentzeria mertzeria

Behoko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

KULTURA → HERRITARRAK BARTZELONAN

New Generation asteburuan izan dira herriko dantzariak

Nazioarteko irakasleekin klaseak hartzeko aukera izan dute

Irune ELIZAGOIEN

Rebeka dantza eskolatik Etxalarko Rebeka, Daniela eta Amaia- rrek, Doneztebeko Olatzekin batera otsailaren 3 eta 4a Bartzelonan pasa zituzten. Bartzelonako Hip Hop eskolak antolatutako New Generation asteburuan parte hartu zuten eta hainbat estilotako klase bereziak hartzeko aukera izan zuten. Gainera ez nolanahiko irakasleekin; berteen artean, Sebastián Linares, Jun Quemado eta Judith Endje zeuden.

Sagardotegira irteera

Martxoaren 10ean Zabala sagardotegira irteera eginen dute gazteek. Apuntatzeko epea zabalik dago otsailaren 23a arte. Martxoaren 10ean, 13:00etan abiatuko da autobusa herri sarreratik eta 04:00etan itzuliko da.

Arkupeak elkartekoen besta

Etxalarko Arkupeak elkarteko kideek urteko besta egin zuten otsailaren 4an. Goizean hildako bazkideen oroimenean meza izan zen eta ondotik, elkartasuneko bazkaria Herriko Ostatuan. Gero, mus txapelketa izan zen eta lau bikotek parte hartu zuten. Txapelkunak Jose Antonio Elizalde eta Domingo Aranburu izan



ARGAZKIAK: REBEKA ARANZADI

Etxalarko eta Doneztebeko ikasle-irakasleak Bartzelonako Photocall-ean.



ARGAZKIAK: REBEKA ARANZADI, IRUNE ELIZAGOIEN, AXUN ELIZALDE ETA ANGEL MENDIKOAI

Giro ederrean joan dira inauteriak

Ortzegun Gizen egunarekin hasi eta astearte inauteri eguna arte iraun zuten inauteri bestek. Eguraldi txarrari aurre eginez, giro ederrean pasa zituzten besta egun hauek herritarrek. Argazkietan ikusi bertzerik ez dago!

ziren (argazkia, 24. orrialdean) eta bigarrenak berriz, Jesus Arribillaga

eta Joxemari Maia. Bi bikote hauek martxoaren 15ean Donezteben

eginen den mus txapelketako finalerako sailkatu ziren.

Lehen jaunartze eguna

Menu ezberdinak
Haurrentzako animazioa

Bazkal ondoren haurrek jolastu, dantzatu eta ongi pasatzeko espazio berezia dugu, **animatzaile** baten eskutik. Eguraldiak ez badu laguntzen egokitutako leku estalia dugu.



ETXALAR | T. 948 63 50 00 | www.etxalar.com | info@etxalar.com

KONTSULTATU GURE ESKAINTZAK



ARANTZA

KULTURA → MARTXOAREN 10EAN

Trikitixa Jaiialdirako prestaketak aitzinerara doaz

Kultura Batzordeak hirugarren aldiz antolatu du

Nerea ALTZURI

Gain-gaínean dugu Trikitixa Jaialdia. Udaleko Kultura Batzordearen ekimenez, martxoaren 10ean herriko nahiz inguruko trikitixa eskoletako dozenaka musikari bilduko dira frontoian.

Hauek izanen dira partaideak: Doneztebe-ko Agorreta musika eskola, Arantzako trikitilariak, Etxalarko trikitilariak eta Elizagoien ahizpak, Berako Irats Trikitixa eskola eta Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskola, Lesakako Trikitixa Eskola eta Udal Musika Eskola eta Aurtizko Mendaur Trikitixa eta Panderójoleen Eskola.

Azpeitiko Sahatsa Dantza Taldeko dantza-

rien saioak ere izanen dira jaialdian. Emanaldia akaututa, partaide guztiarentzat oroigarriak eta berendua eskainiko dituzte eta hondarreko bi urteetan bezala, omenaldirik ere ez da faltako.

Bertzalde, publikoaren artean, opariak zozketatuko dituzte: Martikoko loteak, Arantza Hotelean spa saioa, Amaia ile-apaindegiko balea, Irrisarri Landeko Baxi abenturako sarrerak, Onddo ta Puntoko kamisetak eta Martutzak jantzi-dendako eta San Miguel tailerreko opariak.

Emanaldia 16:30ean hasiko da. Sarrera bortz eurotan izanen da eta 12 urtez beheitikoek ez dute ordaindu behar.

Guraso Eskola martxoaren 1ean

Joan den abendua-ren erdialdean, nerabezaroari buruzko lehenbiziko guraso eskola egin zu-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Inauteriak giro ederrean

Eguraldi kaxkarrak ez zuen inauterietako giroa zapuztu. Ohiko ekitaldiek ez zuten hutsik egin, eta herritarrek eta herrira etorri zirenek, gustura pasatu zituzten.

ten Guraso Elkarteak eta Bortziritako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak antolatuta. Harrera ona izandu zuen eta horri segida emanez, bertez hitzordu bat antolatu dute.

Martxoaren 1ean izanen da, 16:00etatik 17:30-era Baskulan. Nerabezaroaz solasean segituko dute: norbere sentimenduen adierazpena, harremanak eraikitzen (sexua-

litatea), aisialdian (pantailak, kontsumoak...), nerabe baten guraso izatea...

Izen-ematea 948 635 036ra deituz edo ssb@lesaka.eus-era idatziz egin daiteke.

aterpe
albergea jatetxea ostatua

T. 948 634 179
ARANTZA
www.arantza.net

en: pasa inauterian

XAGU
LIBURUDENDA

Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA
Tel. / Fax 948 638 232

INTERNETEKO EROSKETEN
BILKETA ETA ITZULKETA ZERBITZUA

.celeritas
ali donde tu quieras

Amazon
Corte Ingles
Zalando
Fnac
Kiabi
Philips ...

**EROSKETAK
JASOTZEKO
GUNEA**

ZUBIONDO
Jatetxea

sagardotegia jatetxea

Alasta karrika
BERA NAFARROA

TEL: 948 625 474

sarobe
gozotegia okindegia

pº de eztegara 25 bajo
31780 berá (navarra)

t.948 63 08 99
www.sarobe.net

OSPAKIZUNAK → GAZTEEN ESKEAN

Hotza eta euria izan dira protagonista inauterietan

Eskolako ikasleen antzerkia arrakastatsua izan zen

TTIPI-TTAPA

Eguraldiak markatu du aurten inauterien agenda; hotza eta euria izan dira protagonistak. Ez zuten mozorrok gozatzeko aukera soberanterik izan. Giro hotz eta bustiarekin hasi zuten ortziral goizeko Berrizaungo itzulia eta horrelaxe bukatu zuten larunbat ilunabarrean. Iaz baino mozorro gutixeago ibili ziren baina tarte horretan herria eta auzo guziak bisitatu zituzten eskean.

Ortzegun Gizen eguneko tradizioa ere bete zuten herriko haur eta gaztetxoak. Lauzpa-

bortz talde ibili ziren *Arraultze-arraultzean*, adinka banatuak, bai bertako eskolakoak baita Berara doazenak ere.

ESKOLAKO ANTZERKIA

Otsailaren 9an izan zen, arratsaldean, eskolako haurren urteroko antzerki emanaldia. Raul Garcia beratarrek gidatuta, ikasle eta irakasleek ikuskizun zoragarria eskaini zuten Baratzondoko aretoan. Lau taldetan banatuta egin zuten saioa: Haur Henkuntzakoak lehenbiziko eta ondotik Lehen Hezkuntzako hiru zikloak, bakoitzak bere aldetik. Antzerkiak, dantzak, bertsoak, sketch-ak... Hainbat genero landu zituzten haurrek. Guraso, familiarik eta herritar aunitz bildu ziren ikuskizunera, aretoa jendez lepo betez.



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA
Baratzondoko aretoan emanaldi ederra eskaini zuten eskolako ikasleek.

Ba al zenekien

Otsailaren 4a izan zela azken eguna Asier Iriarterentzat La Villa ostatuan. Herriko Etxearen ostatuan

2015eko uztailaren 17an hasi zuen bere ibilbidea. Azken egunerako, despedida gisara, gonbitea zabaldu eta berendua prestatu zuen.



ARGAZKIA: IGANTZIKO BILTOKIK UTZIA

Mus eta partxis txapelketak Biltokin

Otsailaren 10ean jokatu ziren mus eta partxis txapelketen finalak Biltoki elkarrean. Partxisean Korpus Etxeberria eta Anttoni Goienetxe izan ziren txapelak, Joxepa Etxeberria eta Felix Goienetxeri irabazita. Musean, berriz, Luis Almandoz eta Patxi Loiarlek irabazi zuten, finalean Juan Ramon Retegi eta Joxe Mari Mitxelena gaituzte. Ondotik, ohiko afariaz gozatzeko aukera izan zuten parte-hartzaile guztiek. Argazkian, lau txapelak ageri dira.

Foto: Pressfoto - Freepik.com

caser
residencial

Zure ondoan,
gehien behar duzunean

ANAKA | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780

BETHARRAM | Zubieta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 169

Egonaldi motak

- Egonaldi iraunkorrak
- Aldi baterako egonaldiak
- Familiaren atsedenerako
- Erreabilitazioa, operazio ondokoak eta gaixondoak
- Alzheimerra eta bestelako demenziak dituzten gaixoentzako egonaldiak
- Eguneko zentroak, 365 egunetan irekita
- Babespeko apartamentuak

www.caserresidencial.es

SUNBILLA

KULTURA → BERA ETA ARANTZAKO JAIALDIETAN

Musika joz eta kantuan ibiliko dira herriko neska-mutikoak

Bi talde izanen dira Haur eta Gaztetxoek kantu jaialdian

Maider PETRIRENA

Bertze urte batez herriko gaztetxoak Nafarroako Haur eta Gaztetxoek Kantu Jaialdian parte hartuko dute. Martxoaren 3an Bera-ko Kultur Etxean arratsaldeko 6etan ondorengo gaztetxoak parte hartuko dute:

Arraroa noski kantarekin: Maren Irigoien Arretxea, Ibai Petrirena Gorosterrazu, Ander Apeztegia Martinez, Iraide-Garaine Iriarte Petrirena, Maialen Aiesa Rekarte, Eneritz Iturralde Ezkurra, Oihan Apeztegia Martinez, Unax Larraburu Hernandorena, Uxue Ibarra Mariezkurrena, Uxue Armendariz Aizkorbe, Jon Ibarra Olaetxea, Hodei Gastesi Etxebeste, Ane Zelaieta Indakoetxea, June Aiesa Rekarte eta Na-

roa Petrirena Anzizar.

Geri mugimendua kantarekin, berriz: Oihan Apeztegia Martinez, Unax Larraburu Hernandorena, Uxue Ibarra Mariezkurrena, Uxue Armendariz Aizkorbe, Jon Ibarra Olaetxea, Hodei Gastesi Etxebeste, Ane Zelaieta Indakoetxea, June Aiesa Rekarte, Nafarroa Petrirena Anzizar, Oihan Lujanbio Santxez, Maialen Arretxea Otxandorena, Egoi Irigoien Arretxea, Markel Agesta Hernandorena eta Iraitz Iparragirre Zunda.

Mendaur Trikitixa pandero eskolarekin ere Haur eta Gaztetxoek kantu jaialdian parte hartuko dute *Iñundik Iñoa-re* kantarekin: Maialen Aiesa Rekarte eta Iraide-Garaine Iriarte Petrirena.

Bertzetik, Arantzan ospatuko den III. Trikitixa Jaialdian ere Ane Zelaieta Indakoetxeak eta June Aiesa Rekartek parte hartuko dute martxoaren 10ean.



Ba al zenekien

Martxoaren 17an Ariztigain Kanpenean kantu zaharren bazkaria egingen dela? Animatu!



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Otsaileko Malerreka kantuz herrian egin zuten

Egun euritsua kantuz bete zuten otsailaren 3an. Eguraldia ez zen oztopo izan, eta argazkian ikusten den bezala, kuadrilla ederra bildu zen kantuak kantatzeko. Agerralderen akordeoia, Iñaki Muruaren filarmonika, Igor Arruabarrenaren gitarra eta Aitor Ibarrenen tronpeta hotsa izan zituzten lagun. Eliza atarian hasi, Fonda ostatuan barna ibili eta Bustitzen bukatu zuten ibilbidea. Azken geltokian pintxoak dastatu eta zintzurak bustitzeko aukera izan zuten.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Otsailaren 25ean abiatuko da Koldo Herreraren mendi bizikleta denboraldia

Caja Ruralek urtero antolatzen dituen BTT karreretan parte hartuko du Koldo Herrera Urroz herriko txirrindulariak eta hau izanen da egutegia: otsailaren 25ean Unzue, martxoaren 18an Faltzes, apirilaren 15ean Tutera, maiatzaren 27an Dikastillo, ekainaren 10ean Zangoza eta irailaren 16an Arazuri. Horrez gain, aurtun kadete mailan Euskadiko opean eta Espainiakoan selekzioarekin parte hartu dezake. Zorte on!

FLASH

Taxi zerbitzua

Otsailaren 9an herriko taxi zerbitzua berriz ere martxan jartzeko bileran informatiboa egin zuten. Interesa duenak otsailaren 28a bitarte dauka udaletxean apuntatzeko aukera.

Aurrematricula

2018-2019 ikasturterako Haur eta Lehen Hezikuntzako aurrematrikulak egin zituzten hilarren 1etik 7ra. Bortz ikasle hasiko dira.

Euskal Herriko mus txapelketa

Pattere Galtzagorri-nes Obregozo, Joxe Mari Arretxea-Joxe Martin Agirre bikoteek parte hartuko dute Nafarroako kanporaketan larunbatean Iruñean.

ANTZUZELAI
S.L.

ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK
Tel. 948 631 317 • Faxe. 948 631 587
Irungo errep. BERA
www.antzuzelai.com
info@antzuzelai.com

Aintzinaldeak, angeluak, oma antzinakoak, leihoak, atek, arkuak, pilareak, tximiniak, ertalzak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marrazkiak

ola
SAGARDOTEGIA
www.olasagardotegia.eus

Bertako sagarrarekin egindako sagardoa

- 250 lagun eserita
- Klimatizatua
- Sagardotegiko menua

TXOTX GARAIA IREKIA
102 Meaka auzoa • 20304 IRUN • Tfnoa 943 623 130

GIZARTEA → MARTXOAREN 1ETIK 15ERA

Haur Eskolak aurrematrikula egiteko epea zabalduko du

Martxoaren 3an ate irekien jardunaldia egingen dute

Marga ERDOZAIN

Ikasturte hasiera presatzen hasi dira Askin Haur Eskolan, eta martxoaren 1etik 15era eskaerak egiteko aukera izanen da eskolan edota Udaletxean. Epe horren barranean, dokumentazioa udal bulegoetan aurkeztu beharko da. Haurrak jardunaldi osoan edo erdian matrikulatzen ahalko dira.

Haur Eskola eta bere proiektua bertatik bertara ezagutzeko ate irekien jardunaldia egingen dute martxoaren 3an 10:00etatik 12:00etara. Egun horretan, egunero ko martxa, txokoak eta jangela zerbitzua ezagutzeko aukera izanen dute. Azken hori haur eskolako altxorretako bat da, sukalde propioa baitu eta etxeko menua eskaintzen dute.

Aurrematrikula egin eta gero, erreklamazioetarako maiatzaren 4tik 11ra bitarteko epea za-



ARGAZKIAK: MARGA ERDOZAIN

Inauteri bikainak

Ortzegunerako, puska biltze eta afariekin, mugimendua antzematen hasia zen herrian, baina igandeko orgak bereziki ikusgarriak izan ziren. Batzuen hilabeteko lanak eta bertzeen azken orduko mozorro originalek karrikak kolorez bete zituzten. 20 orga baino gehiago ibili ziren desfilean, eta jendeak ikusmiraz erreparatu zien. Bezperan, mandarra eta zapela jantzirik, puskak bilduz hasi zuten eguna gazteek. 120 lagun bildu ziren bazkarian eta ondotik, 300 piraten abordatzea izan zen ikusgai.

balduko dute. Behin-behineko zerrendak maiatzaren 21ean ezagutaraziko dituzte. Matrikularioa egiteko epea, be-

rriz, maiatzaren 21etik 25era izanen da.

Informazio gehiago nahi izanez gero, Udaleko web orrian, *askinhau*

rreskola@gmail.com helbidean edota ondorengo telefono zenbakian eskuratzen ahal da: 683 151868.

HERRIGUNE HISTORIKOKO PLAN BEREZIA

Plan bereziaren parte-hartze prozesuaren segida

Otsailaren 14an egindako bilkuran, Herrigune Historikoko Plan Urbanistikoaren behin-behineko onarpena bertan behera utzi zuen Udalak, plan honek orain arte izan duen parte-hartze prozesua osatzeko asmotan. Gardentasuna eta herritarren parte-hartzea bermatzeko helburua izanda, orain arte egindakoa osatu eta jarraipen eman nahi dio Udalak. Nondik norakoak eta datak ezarritakoan, web orrian zintzilikatuko dituzte.

OTSAILAREN 28AN

2018ko aurrekontuak aurkeztuko ditu Udalak

2018ko aurrekontuen eta herriaren egoera ekonomikoaren berri emateko batzar irekia egingen du Udalak otsailaren 28an, 19:30ean, Herrigunean. Horrez gain, Udalak udal buletin bat ere argitaratuko du 2018an zein lehentasun eta zein proiektu egingen diren azalduz. Buletina etxe guztietara banatuko dute, eta inork jasoko ez balu, udal bulegoetara joanda lortuko duela jakinarazi dute Udaketik.

FLASH

Uholdeen kontrako planaren diptikoa

Otsailaren 21ean aurkeztu zuen Udalak uholdeen kontrako plan homologatua. Eta orain, plana herritar guztien gana zabaltzeko, diptiko bat argitaratu eta etxeguztietara igorri du. Udalak diptikoa arretaz jarraitzeko eskatu die herritarrei, eta balizko uholdeak daudenean eskura eta erabilgarri izateko. Bi hizkuntzatan argitaratu dute eta herriak nolako uholde arriskuak dituen agerida; planaren nondik norakoak ere azaltzen dira, baita larrialdi egoeretan, herritarrek zer egin behar duten ere.

'Handia' filma martxoaren 4an

Altzoko Handiaren bizitzan oinarritutako *Handia* filma ikusteko aukera izanen da martxoaren 4an, 16:30ean. Emanaldia Udalak antolatuko du eta doan da.

Bidaia bideoak

Mugikorrarekin edo argazki kamerarekin bidaia bideoak egiten ikasteko aukera izanen da Oier Fuentesekin. 12 orduko ikastaroa, lau saiotan banatuta egingen da. Apuntatzeko 618 485567 telefonora deitu behar da eta prezioak hauek dira: erroldatuek 30 euro eta ez direnek 35.

Teknika hipopresioen tailerra

Otsaileko saioak izandako arrakastaren ondotik, Udalak teknika hipopresioen bertze tailer bat antolatuko du: martxoaren 2an eta 9an. Lau ordukoak izanen da, 19:30etik 21:30era, eta Herrigunean egingen da Bego Viela adituarekin.

ITUREN

GIZARTEA → MARTXOAREN 3AN

Malerreka Kantuz ekimenak herrian izanendu hurrengo geldialdia

Mendaur trikitixa eta pandereta eskolako ikasleek haur kantari jaialdian parte hartuko dute

Arkaitz MINDEGIA

Malerrekako Euskara Zerbitzuak hilabetero antolatzen duen Malerreka Kantuz ekimenak herrian izanendu martxoaren 3an, eguerdian izanendu dute hitzordua herriko plazan. Apirilaren 7an Donamariak hartuko du lekukoa, maiatzaren 5ean Doneztebek, ekainaren 2an Urrozek, urriaren 13an Zubietak, azaroaren 3an Oizek eta abenduaren 1ean Ezkurak. Pixkanpik herri guztiak kantuz alaituko dituzte. Mankomunitatetik ani-

matzeko eta parte hartzeko deia egin dute.

Frontenis txapelketa

Herritarrak Aunitz Eskuetan Taldeak antolatutako frontenis txapelketa jokatzeko ari dira. Xabin eta Oier Bereau anaiak ez ezik, emakume aunitz ari dira parte hartzen: Maria Larretxea, Maider Goñi, Iruñe Bazterrika, Iratxe Fagoaga, Ane Bazterrika eta Ane Telletxea. Bartzuk irabaziz eta bertzeak galduz, baina bartzuek zein bertzeek saioan daudela erakutsi dute.

Herritarrak Haur Kantari Jaialdian izanendu dira

Martxoaren 3an Beran abiatuko da aurtengo Nafarroako haur kantari jaialdia. Azken urteetan bezala, aurtengo ere, Mendaur trikitixa

eta pandereta eskolako ikasleek bertan parte hartuko dute. Herriko ikasleez gain, Legasa, Sunbilla, Oronoz eta Arizkongo eskolakoak ere ibiliko dira.

Lau talde ariko dira oholtza gainean eta Huntzaren *Iñundikiñoare*, Xabi Solanoren *Errezenituzten sorginak*, Alaitz eta Maiderren *Is-pilu aurean* eta Pirritx, Porrotx eta Marimotzen *Euskal irria* abestiak kantatuko dituzte. Ziru gure etxeko artista ttikiak bikain abestuko dutela!

Emakume Eguneko afaria

Emakumearen Egurenaren harira, aurtengo ere afaria egingo dute martxoaren 10ean, larunbatean, Herriko Ostatuan. Afarira joan nahi dutenek izena emateko bertara joan behar dute. Anima zaitenez eta eman izena, giro ederra izanendu da eta!



UTZITAKO ARGAZKIAK

Saldiasen eta Sunbillan izan zituzten aitzineko hitzorduek.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Emakumezkoen Urrezko Aizkorako finalean ariko da Maika Ariztegi

Maika Ariztegi, herriko aizkolaria martxoaren 4an Emakumeen Urrezko aizkorako finalean ariko da Azpeitian. Izan ere, orain arte jokaturiko kanporaketetan txukun ibili izanak finalerako sarbidea eman dio. Ongi ezagutzen duen Iruñe Izkue izanendu du aurkari. Zorte on bie!

Ba al zenekien

Orain arte inauteriak antolatzeaz arduratzen zen gazte taldeak ondorengoei pasa ziela lekukoa? Inauterietan ederki moldatu dira, 130 euro baino ez dituzte ordaindu.

sarobe®
gozotegia okindegia

pº de eztegarra 25 bajo
31780 bera (navarra) t.948 63 08 99
www.sarobe.net

Lizun
GAZTANDEGIA

Sunbilla · Tel: 948 450 862

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.com

BORDALARREA

Gure Haragia
Nuestra Carne

Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27
MAFRIDO ERAIKINA · DONOSTIA
Tel. 943 467 244 943 467 444
Fax. 943 473 726
carnessein@bordako.com

GIZARTEA → MARTXOAREN 11N, DONEZTEBEN

Mieltxo Mindegia eta Luis Txapartegik apustua jokatuko dute

Aizkolari bakoitzak 4.000 euro jokatuko ditu

Fermintxo ETXEKOLONEA

Mieltxo Mindegia herritarrak, Luis Txapartegi gipuzkoarraren aurka, apustua jokatuko du martxoaren 11n, igandean, 12:00etan, Doneztebeko Ezkurra frontoian. Txapartegiren asmoa txapelketako lan bera egitea bazen ere (lau kanaerdiko, lau 60 ontzako eta lau oinbiko), azkenean, zortzi kanaerdiko, lau 60 ontzako eta bi oinbiko ebakiko dituzte.

Azaroaren 23an, Tolosako Kantabriko osta-

tuan, apustua itxi zuten egunean adostu bezala, aizkolari bakoitzak 4.000 euro paratuko ditu jokoan (dagoeneko fiantza moduan jarritako 1.000€-ez gain, beste 3.000€ apustuaren aurretik).

Emakumearen Eguna

Martxoaren 8an Emakumearen Eguna dela eta, Udalak larunbat horretarako, hau da, otsailaren 10erako zerbait antolatu nahi du. Emakumeek, egun horretan, afaria egin ohi dutenez, arratsalderako zerbait antolatzea aurreikusitako da. Hurrengo zerbait emanen dugu xehetasunen berri.

Bikain ari da Naroa Elizalde

Aurreko zerbait aipatu bezala, Naroa Elizalde herritarra, Arruako Araitz Eizagirre bikote duela, Laboral Kutxa Emakume Master Cup txapelketan ari da. Emaitzek islatzen dutenez, bikain ari da. Lerrook idatzi ziren momentuan bi partida zituen jokatutako eta biak irabaziak. Zorionak eta eutsi goiari!

Erretiratuen hitzordua

Herriko Arkupeak Elkartearen kideak otsailaren 16an elkartzekoak ziren, Elgorriagako Herriko Ostatuan, mus txapelketa jokatuko,



UTZITAKO ARGAZKIAK

Doneztebeko Ezkurra frontoian ariko dira.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Uraren bidea moldatzeko asmoa dute

Udalak, diru-laguntza jaso duela aprobetxatuz, Doneztebe eta Zubieta arteko Uraren Bidean moldaketak egin nahi ditu. Hiru enpresei aurrekontua eskatu die. Oraindik orain, lanaren esleipena egin gabe dago.

bertako eta Iturengo bazkideekin batera. Igandean, berriz, El-

gorriagako Hilarionen bazkaltzeko asmotan zebiltzan.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Merkealdia

Funda nordiko eta edredoietan espezialistak
edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak
Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

URROZ

OSPAKIZUNAK → OTSAILAREN 9AN ETA 10EAN

Giro ezin hobean joan dira inauteriak aurten ere

Haurrek herriko etxeetako eskea ortziraletan egin dute aurten

Jaione ARIZTEGI

Giro ederra izan da inauterietan. Bertze urteetan ez bezala, haurrek herriko etxeetako eskea ortziraletan egin dute aurten. Eskolatik atera bezain laster, bakoitzak bere mozorroa jantzi eta etxez etxe ibili ziren herriko karrikak alaituz. Eguraldia lagun ez bazen ere, kuadrila bat bildu eta arratsalde polita igaro zuten. Eguna akitzeko, zaharragoek afaria izan zuten Herriko Ostatuan eta bertan gaua luzatzeko au-

keraz izan zuen batek baino gehiagok.

Hurrengo goizean, bezperako ajeari ailegatzeko astirik eman gabe, 10:30 aldera plazan bildu eta baserrietarantz abiatu ziren gazteak egun guztirako. Denek lortu ez bazuten ere, gehiengoak baserri guztiak akitu eta ordu txikitanez zuten buelta herrira, bertze zenbait afaltzen zeuden bitartean.

Eguraldia ez zegoen alde, baina egun arrotz polita izan zen, besta giroan zeuden gazteei zela inauterietan ireki zituztenei esker. Oroitzapen on eta goxoarekin hurrengo urtera arte mozorroak gordeko dituzte herritarrek, beraz.



Ba al zenekien

Otsailaren 18an herriko Arkupeak elkarteko ki-deak, Donamaria, Gaztelu eta Oizkoekin batera Belarra jatetxean bazkaltzekotan zirela?



ARGAZKIAK: JAIONE ARIZTEGI

Batzuk afaltzen zeuden bitartean, bertzeak baserrietan ibili ziren.



ARGAZKIA ETA TESTUA: ARANTXA ITURRALDE

Beintza-Labaiengo inauteriak kolore eta umorez josiak

Beintza-Labaiengo inauteriak otsailaren 3an ospatu zituzten. Egunez gazteak puskak biltzen ibili ziren herria kolorez eta umorez josiz. Bien bitartean, Beintza-ko ostatuan herriko gaztetxo, haur eta helduak bazkaltzeko bildu ziren. Goitiko argazkian Beintzan bildu zen gazte eta haur taldea; behekoan, berriz, mozorratutako herritar taldea.



Menu aukera zabala
Jangela pribatua
Bazkal ondorengo festa (aukeran)

Errotalde z/g 31744 ELGORRIAGA (Nafarroa)
T. 948.45.60.45 | www.balnearioelgorriaga.com



sanvirilo
hoteles de ensueño

Zure jaunartzean
besta egun zoragarria!

GIZARTEA → AUNITZ ESKUETAN TXAPELKETA

44 bikote ari dira Malerrekako frontenis txapelketan

62 lagun ari dira mutilen kategorian, 26 nesketan

TTIPI-TTAPA

Urtarrilaren 27an abiatu zuten Aunitz Eskuetan taldeak antolatutako Malerrekako frontenis txapelketa. 44 bikote, guztira 88 lagun,

buru-belarri ari dira ordutik, eta martxoaren 17ra bitarte, astebururo-astebururo jokatu dituzte partidak. Martxoaren 17an, borobilduko dute txapelketa Donezteben, egun osoko frontenis hitzordua izanen dutelarik. Izan ere, goizean 3. eta 4. postuak jokatu dituzte, arratsaldean, berriaz, finala.



UTZITAKO ARGAZKIA

Martxoaren 17an jokatu dituzte bai 3. eta 4. postuak, baita finala ere, Donezteben.

Bien bitartean, martxoaren 10ean finalerdiak izanen dira.

PUNTU BANAKETA

Orain artean jokaturiko partidetan honako bikote hauek, partida irabazita, puntu bana lortu dute: emakumezkoen artean, Maite Iriarte eta Miren Arretxeak; Maria Larretxea eta Maider Goñik; Olaia Martiarena eta Kontxi Etxeberriak; Ainara

Urrutia eta Irune Bazterrikak, Mikele Etxekolonea eta Naroa Elizalde; Bidari Juarena eta Izaskun Arozek; eta Esther Iriarte eta Alazne Aizpuruk. Gizonezkoetan, berriz, honakoak izan dira irabazle: Javier Jabalera eta Juan Jose Larunbe; Enaitz Iriarte eta Aimar Leatxe; Andoni Espelosen eta Unai Juanena; Antonio San Migel eta Juanenea; Luismi eta


Felipe Ganboa; Mikel Telletxea eta Borja Iturria; Jon Mikelarena eta Ibon Leiza; Ekaitz Astiz eta Imanol Gaskue; Joseba Telletxea eta Mikel Goñi; Asier Doray eta Unai Larrayoz; Xabier eta Oier Bereau; Iñaki Oskoz eta Patxi Sarraitea; Jon Otxoteko eta Xabi Maritxalar; Santi Yanci eta Mikel Larregui; Iñigo Zubeldia eta Ibai Erasan; eta Mikel eta Igor Arregi.

DONEZTEBE

Hasi dira **MALERREKA PROMOZIOAK** promotorak egindako etxebizitzak eraikitzen.

Dagoeneko 2. faseko etxebizitzak salgai



- ✓ Zure beharren **araberako finantziazioa**, Rural Kutxaren babes eta abalarekin 
- ✓ **B ziurtagiria**, isolamendu berriak, sistema aerotermikodun berogailua (kontsumo baxua)
- ✓ **Material nobleetan** eraikia
- ✓ **Barne materialak aukeran**: egurra, azulejoak...
- ✓ Sukaldea eta lokala gurekin erosiz gero, **%11 aurreztuko** duzu

Informa zaitez

EZKAIN ERAIKUNTZAK
Inzakardi kalea z/g | **DONEZTEBE**

629 951 170



ZURE BEHARREN ARABERA,
2 eta 3 logelako etxebizitzak.
Zuk erran eta guk egin!

58 m²koak:
sukaldea/egongela, 2 logela, 2 komun.

74 m² eta 90m² ingurukoak:
3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun.

135.000 €tik goiti

LOKALAK ere baditugu,
txoko, garaje edo
lokal komertzialak egiteko

GIZARTEA

MENDIA → MARTXOAREN 10EAN BOLUNTARIO BERRIEK IKASTAROA EGIN BEHARKO DUTE

GR ibilbideen mantenimendurako 2018ko boluntario kanpaina abiatu da

Nafarroako Mendi Federazioak garatuko du, Baztan-Bidasoa Turismoa Elkargoaren laguntzaz

TTIPI-TTAPA

Duela bi urte inauguratu zuten Izpegin (Erratzu, Baztan) Baztan-Bidasoko GRen (Ibilbide Luzeak) sarea. Guztira 208 kilometro dira, horien artean GR-11 (Transpirenaika) eta GR-12 (Euskal Herriko Bidea) ezagunak eta GRT-5 Trekking Bidasoa ibilbide berriak. Proiektua Nafarroako Mendi Federazioak garatu zuen, bideak markatzeko boluntario talde baten laguntzaz; horren antolakuntzan Baztan-Bidasoa Turismoa Elkargoak parte hartu zuen.

Aurten ere, boluntario izateko kanpaina abi-



UTZITAKO ARGAZKIA

GR bideen bidegurutzeta seinalizatua, Bagordin.

an jarri du Mendi eta Eskalada Kirolen Nafarroako Federazioko Bidezidorren Komiteak.

Hortaz, egitasmo honetan parte hartu nahi duenak izen-emate fi-

txa bete bertzerik ez du egin behar (www.nafarmendi.org webgunean ere bada) eta otsailaren 25a baino lehen bidali info@baztan-bidasoa.com edo [\[navarra.com\]\(http://navarra.com\) helbidetara edo Federaziora eraman.](mailto:info@mendi</p>
</div>
<div data-bbox=)

Martxoaren 10ean boluntario berriek ikastaroa egin beharko dute. Ikastaroa Iruñean egingen da, baina Bertzen, Baztan-Bidasoa Turismoko egoitzan bertze ikastaro bat egiteko aukera ez dute baztertu. Edozein zalantza edo informazio gehiago: 948 592323 telefonon.

ZENBAIT DATU

Hainbat GR ibilbide dago Baztan-Bidasoan barna: GR11 (Pirinioetako ibilbidea), GR12 (Euskal Herriko ibilbidea) eta GR10 (ibilbide frantziarra). Hortxe daude baita GR11 eta GR12 bideen arteko loturak ere, Bidasoako Trekking-a eta GRT5 Kulkaren Bidea.

Guztira 208 kilometro GR ibilbideen barrena, behar bezala seinalizatuta eta boluntario sareari esker, egoera onean daudela bermatuta.

BAZTAN-BIDASOA

Kideek izena emateko atea zabalik ditu Turismoak

TTIPI-TTAPA

Baztan-Bidasoa Turismoak, landetxe, aterpe, hotel, jatetxe, ostatu... turismoari lotutako zeinahi establezimenduetako jabeek izena emateko atea zabaldu dituela jakinarazi nahi die. Kide egitearekin, turista eta bisitariei eskaintzak helaraziko zaizkiela eta webgunean ez ezik, Facebook eta Twitter bidez publizitatea egingen zaiela azpimarratu dute. Halaber, Baztan-Bidasoa Turismoak kaleratutako material guztia esku-ragarri izanen dute: esku-orriak, gidak...

Horretarako, bazkide fitxa bete eta urtean 310 euroko kuota ordaindu beharko dute, hiru alditan: urte hasieran, udan eta bukaeran. Informazio gehiago nahi izatekotan 948 592323 telefonora deituz edo info@baztan-bidasoa.com helbidetara idatziz lor daiteke.

Gaur egun, laurogei bazkidek osatzen dute Baztan-Bidasoa Turismoa, eta handitzen jarraitu nahi du. Horrela, eskualdera datozen bisitariei ahalik eta harrera hobereana eta osoena egitea dute helburu.

AUNITZ ESKUETAN

Otsailaren 24an, Donezteben, ekinen diote sinadura bilketari

TTIPI-TTAPA

Aunitz Eskuetan Taldeak, Malerreka eta Bertizaranako Gure Esku Dagoen baitan sorturikoak, galdeketa egin ahal izateko sinadura bilketari ekinen dio hilaren 24an, larunbatean, Doneztebeko Herrigunean, 18:00etan. Jai giro eta pintxo artean bilduko dituzte sinadurak.

Ondotik, kultura demokratikoa eta erabakitze eskubide-

an sakontzea helburu duen talde horrek, «herri bat garelako eta erabakitze eskubidea dugulako» maiatzaren 6an paratuko dituzte hautesontziak mahaietan, herriko plazetan eta herritar guztien esku, «etorkizunean zer nolako nahi dugun herria erabakitze».

Horrela bada, Malerrekan eta Bertizaranan eta bertze 18 herri eta eskualdetan ere, 111.000 lagunek herri galdeketa olatua-

ren parte izateko aukera izanen dute, orain arte parte hartu duten 760.000 herritarrekin bat egingez. Informazio gehiago edota zehatzagoa nahi izatekotan, Twitter (@AunitzEskuetan), Facebook (Gure Esku Dago Malerreka) edota Instagram (Aunitz_eskuetan) bidez eskura daiteke.

Taldeak parte hartzeko deia egin du. Horretarako, etxe etxe esku-orriak banatzen hasi dira.

LEHIAKETA → ERRAN.EUS ATARIAK

Inauterietako argazki lehiaketa antolatu du lehendabiziko aldiz

Argazkiak martxoaren 15era bitarte bidal daitezke

TTIPI-TTAPA

Inauteri aroan sarturik, ERRAN.EUS atariak IV. argazki lehiaketa antolatu du. Momentu politenak, mozorro originalenak, jendearen ikusmira... islatzen duten argazki ederrenak sarituko ditu. Aurten, lehendabiziko, inauterik hartu ditu gaitzat.

EPEAK

Argazkiak martxoaren 15era bitarte bidal daitezke. Ondotik, bozketa fasea izanen da, martxoaren 16tik apirilaren 3ra arte. Apirilaren 6an jakinaraziko dira irabazleak, ERRAN.EUS atarian.

SARIAK

Argazkiak eskualdeko herritarrekin partekatze hutsak sari ederrak lortzeko bide eman dezake.

Epaimahaiaren saria, Nekatur Euskadiko Ne-

kazalturismo Elkarteak eskainitako Nakatur bono orlegia izanen da (bi lagunendako bi gau eta bi gosariz osatua). ERRAN.EUS atariko erabiltzaileek ere izanen dute bozkatzeko aukera eta erabiltzaileen saria Elgorriagako bainuetxean bi lagunendako zirkuitua eta otordua izanen dira. Azkenik, lehiaketan nahiz bozketan parte hartzen dutenen artean, bi lagunendako otordua zozketatuko da Legasako Arotxa jattetxean.



ÚTZITAKO ARGAZKIA

Apirilean banatuko dira sariak.

OINARRIAK

Parte-hartzaileek ondoko oinarriak bete beharko dituzte: batetik, Ttipi-Ttapa edo Xorroxin zabaltzen den eremuetan sortu edo bizi direnei bideratua da eta 16 urtetik goiti izan beharko ditu. Bertzetik, 2018ko inauterietan aterakoak izanen dira (non atera den zehaztu beharko da). Argazkiak mugikor, tablet edo argazki kamararekin at-

ratakoak izan daitezke, originalak eta bertze inon argitaratu ez direnak. Koloretan edo zuribeltzean aurkez litezke eta 300 px-ko bereizmena eta 28x16 zentimetroko gutxieneko tamaina izan beharko dute. Azkenik, argazkiak ERRAN.EUS artxiboan altxatuko dituzte eta berretzat gordeko dute jasotako lanak publikatzeko eskubidea, betiere, egiletza aipatuz.

OKILLIN BIZITEGI AUZOA - LEITZA



20 PASSIVHAUS-ETXEBIZITZEN ERAIKUNTZA HASTEAREN DA.

2018ko martxoaren 15a baino lehen egindako lehendabiziko hamar erreserbek deskontu eta abantaila bereziak edukiko dituzte.

Informazioa eta erreserbak:

OKM zerbitzu juridikoak | T. 609 130 555 | e.celaya@orekabogados.com

ARKUPEAK

GIZARTEA → MARTXOAREN 15EAN

Donezteben 32 bikote ariko dira elkarteko mus txapelketan

Euskal kantuen egunean ere jokatzeko aukera izanen dute

Fernando ETXEBERRIA

Elkarteko kideek, martxoaren 15ean, ortzegunean, Donezteben mus txapelketa jokatu dute. 32 bikotek eman dute izena. Aitzitik, ez da urteko mus hitzordu bakarria izanen. Musean jokatu nahi izanagatik, aukerarik izan ez duenak, apirilaren 26an, Euskal Kantuen Egunean, Dantxarinean izanen du aukera.

Lehendabiziko seiheko buletinean zehaztu bezala, egun horretan, Otxondon bazkalduko dute. Eta 15:00etan Josean eta Kristianen musikaren doinupean, euskal kantak errepasatuko dituzte.

Ondotik, Guateke taldeak hartuko du lekukoa. Bien bitartean, 16 bikotek, Biok enpresak babesturiko mus txapelketa arin-arina jokatu dute, bi orduz. Irabazleek sari potoloak eskuratu dituzte.

Donejakue bidea

Elkartean Donejakue bidea egin nahi duten bi talde sortu dira. Taldeetako batek (8 kide) Iparraldeko bidea egin nahi du. Bertzeak, be-

rriz, Frantziakoa (12 lagun). Hainbat bilkura egin dituzte eta bereziki etapa bakoitzaren hasierara joateko eta bueltatzeko autoa, furgoneta, autobusa edo bertzelako garraioa zehaztea dute oztopo.

Txindoki eta Aralarerako igoera

Goierriko eskarmentu handiko mendizale talde batek, hamargarren urteurrenaren harira, Euskal Herriko bertze mendizale batzuekin batera Txindoki eta Aralarerako joateko igoera antolatu nahi du. Horretarako hango eta hemengo taldeekin harremanetan jarri da, eta badirudi arrakasta handia hartu duela. Data oraindik zehazteke badute ere, ekaineko azken asterako aurreikusitako dute.

Arkupeakeko mendi taldeak irteeran parte hartuko du, lehendik ere aurreikusia zuen Txindokiko irteera aitzakia horren baitan eginez. Joan-etorria autobusez egingen dute. Doneztebetik abiatu eta Bortziriak, Irun, Hondarribia, Leitza eta Berastegiko mendizaleak bilduko dituzte.

Bidaia

Otsailaren 22an 118 bazkide Azkaine eta Bationara joatekoak ziren. Xehetasun gehiago 705. zenbakian ikugai.



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Elkarteko kideak herriz herriko bestak ospatzen dabiltza

Arkupeak elkarteko kideak herriz herri bazkariak egiten eta mus txapelketak jokatzeko ari dira. Otsailaren 3an Oronoz-Mugairin elkartu ziren eskualdeko 82 lagun. Urgain jatetxean bazkaldu eta mus txapelketa jokatu zuten. Jose Luis Oskoz eta Francisco Iruretak irabazi zuten; bigarrenak Ana Mari Gaztelu eta Pakita Mikelarena izan ziren; eta hirugarren Alberto Aleman eta Victor Mendiburu. Biharamunean, Etxalarko Herriko Ostatuan izan zuten hitzordua. Azken horretan Domingo Aranburu eta Jose Antonio Elizalde izan ziren garaile. Bigarrenak, berriz, Jose Maria Maia eta Jesus Arribillaga izan ziren, eta hirugarren Benantxio Elizagoien eta Manuel Arrosamena.

IV. ARGAZKI LEHIAKETA erran.eus atarian

erran.eus
Mendialdeko Albisteak

Gaia: **ESKUALDEKO INAUTERIAK**



Informazio +
erran.eus



OINARRIAK

1. TTIPI-TTAPA eta XORROXIN zabaltzen diren eremuetan sortu edo bizi eta 16 urtetik goiti duen orok parte har dezake.
2. Argazkiak 2018ko inauterietan ateratakoak izanen dira (argazkia non atera den zehaztu beharko da).
3. Argazkiak mugikor, tablet edo argazki kamerarekin ateratakoak izan daitezke, originalak eta bertze inon argitaratu gabeak. Koloretan edo zuri-beltzean aurkez litezke eta 300 px-ko bereizmena eta 28x16 zentimetroko gutxieneko tamaina izan beharko dute (baldintza hauek betetzen ez dituztenak baztertuko ditugu).
4. Argazkiak ERRAN.EUS artxiboan altxatuko ditugu eta guretzat gordeko dugu jasotako lanak publikatzeko eskubidea.

Argazkiak ERRAN.EUS atarian lehiaketarako prestatutako formularioaren bidez bidali beharko du parte-hartzaileak.

EPEAK:

- **Argazkiak bidaltzeko epea:** urtarrilaren 20tik martxoaren 15era.
- **ERRAN.EUSeko erabiltzaileen saria emateko bozketa fasea:** martxoaren 16tik apirilaren 3ra.
- **Irabazleak:** ERRAN.EUS atarian jakinaraziko ditugu apirilaren 6an.
- **Sari-banaketa:** apirilean.

Animatu!

SARIAK

EPAIMAHAIAREN SARIA:

NEKATUR BONO ORLEGIA

2 lagunendako 2 gau eta 2 gosari

ERABILTZAILEEN SARIA:

ELGORRIAGAKO BAINUETXEAN

2 lagunendako zirkuitua + otordua

PARTE-HARTZAILEEN ARTEAN:

LEGASAKO AROTXA JATETXEAN

2 lagunendako otordua



NEKATUR NEKAZALTURISMOA ELKARTEA

Tel: 943 327 090
www.nekatur.net



HOTEL BALNEARIO ELGORRIAGA

Errotalde, Elgorriaga
Tel: 948 45 60 45
www.sanvirilahoteles.com/
hotel-balneario-elgorriaga/



AROTXA JATETXEA

Sta Catalina, 34 Legasa
Tel: 948 456 100
arotxa.com



OIHANGINTZA

Loreak eta landareak

MENDI-LANAK

«Eskualdeko mendiak gero eta zikinagoak eta urriagoak daude»

Udaberria hurbildu ahala, eguraldia lagun, badira mendi-garbiketak, landaketak edotaazienda belagira atera aitzinetik itxiturak egin edo moldatzeko aprobetxatzen dutenak. Halere, inguruko mendiak mantentze-lan aldetik, «gero eta zikinagoak» eta landaketari dagokionez, «gero eta urriagoak, hutsagoak» daude Altzuri mendi-lanak enpresaren ustez. Egoera horri aitzin hartzeko, eta beharrezkoak diren mantentze-lanak egiteko, bai zuzaren erabilera, bai eta ilargiaren eragina ere, aintzat hartu behar dira.



Altzuri mendi-lanak enpresak egurra bota, atera eta garraiatzeaz gain, garbiketak, eskabazioak eta itxiturak egiten ditu.

ZURAREN ERABILERA

Adituen ustez, zurari eman beharreko erabilera ere «erabakigarria» da. Izan ere, «ilargiak zuhaitzaren izerdiaren zirkulazioa» baldintzatzen duenez, «ilgoran enborrean izerdi ugari izanen du». Ilbeheran, berriz, «sendoagoa» izaten da. Hortaz, «eraikuntzarako, erraterako» azken hori erabiliko dugu.

ILARGIAREN ERAGINA

Altzuri enpresak bai landaketak egiteko, bai eta zuhaitzak botatzeko ere «ilargiak eragin nabaria duela» uste du: «espezie bakoitzaren arabera tenore bat bertzea baino hobea da». Zuhaitzak botatzeko orduan, erraterako, «pagoa eta haritz amerikarra ilberria denean botatzen ditugu; bertako haritza, ilbehera denean».

ITXITURAK

Era berean, mota bat baino gehiagoko itxiturak daudela aintzat hartuz, funtzioei erreparatu behar zaie. Batetik, zuhaixkekin eginiko eskai biziak, ederrak eta ingurune naturalentzat, animalien babeserako... mesedegarriak izan daitezkenak daude. Itxura estetikoaz haraindi, Altzuriren ustez, «alanbrezko itxiturak dira eraginkorrenak». Alanbrezkoen artean «alanbre-sare, alanbre-latz eta mistoak» erabiltzen dituzte. Itxituren ezaugarriak (altuera erraterako), abere-espezieen arabekoak izaten dira. Baina zailentzarik gabe, «mistoak dira eraginkorrenak, behi eta behorretatik hasi eta ardiataraino kontrolatzea lor baitaiteke».



MENDI LANAK
EGUR ATERATZEAK
ESKABAZIOAK
GARRAIOAK
GARBITZE MEKANIKOAK
ITXITURAK

SU EGURRA ETA
PIKETEAK SALGAI

Leku-Eder, Bustitz - 31791 SUNBILLA
altzuris@yahoo.es · Tel. 948 450 504
M. 659 867 287 - 699 461 394

Ingurumen Zerbitzuak



- PINADIEN BALORAZIOAK
- LUR NEURKETAK
- MENDIETAKO DIRULAGUNTZEN TRAMITAZIOA
- INGURUMEN TXOSTENAK OROKORREAN

ANDRES ZELAIETA ELTZAUDIA
IGANTZI - LEGASA · T. 606 31 45 26
andreszelaieta@hotmail.com



LARRETXA



EGURRAK

Zuhaitzak erosi, bota eta ateri.
Piketeak eta sutarako egurra.



Pio Baroja, 15 | Bera | T. 617 981 427



Udaberria heldu da!

Zuhaitzak eta fruitu landareak landatzeko garaia da!

Bertako motak, hemen egoitza.

Loreak, tresnak, lore huntziak, kanpoko altzariak, maskotak.

Aukera haundia et hainbeste eskaintza!



84, 1945 maiztaren 8ko etorbidea
64100 Baiona
tel: 00 33 5 59 42 24 42
www.lafitte.net



Berria!

Erlezaintzarako tresnak eta beharrezkoak hemen salgai!



BEKO
LOREAK ETA LANDAREAK


OTSANGO AUZOA • LESAKA • T. 948 637 826

Carlos Txoperena

mendi garbiketak eta landaketak
ITXITURAK




Tel: 948 637 477
637 466 124
LESAKA



"TELLETXEA" Lorazaintza

Kimaketak | Mantentze-lanak
Lorategiak Discinatzea eta Sortzea
Ureztatze Sistema Automatikoak | Paisajismoa



T. 619 418 683
Otxangoko Ind. 18 | **LESAKA**
johnllettxea@hotmail.com
www.telletxealorezaintza.com

OIHANGINTZA Loreak eta landareak

Ongarritzea, ureztatzea bezain garrantzitsu

Landareek, izaki bizidun orok bezala, ureztatze eta elikatze osasuntsu eta orekatua behar izaten dute.

ONGARRIA, AUKERA ERABAKIGARRIA

Ongarritzea, luzaroan, ongarri kimiko edo organikoarekin lotu izan da. Aitzitik, ongarri guztiek ez dute landare guztientzat balio: **nitrogenoak**, erraterako, batik bat, hostoei egiten die mesede; **fosforoak**, berriz, zurtoinei; eta **potasioak** frutadun-arbolei edota loratzen diren landareei. Era berean, **oligoelementuek** gainerako elementu nutritiboak biltzen dituzte, oro har, lurrak berak dituenak, baina gabazien ondorioz landareak haztea galaraz dezaketena eskainiz. Bertzalde, landare-hondakinetatik eratorritako materia organikoak (humusak) zeinahi motatako landareak elikatzeke balio du. Halere, konpostaren prestaketak, humusa sortu bitarte, denbora behar izaten du.

LETREN ETA ZENBAKIEN GIBELEKO MEZUA

Ongarri guztien ontziek erabilerari buruzko argibideak biltzen dituzte. Letrek elementu kimikoei egiten diete erreferentzia: N nitrogenoa, P fosforoa eta K potasioa direlarik eta oligoelementuren bat izatekotan haren ikur kimikoa baliatuz. Zenbakiak, berriz, bakoitzaren kopurua adierazten dute.

BEHARRA LEGE

Landare bakoitzak bere beharrak dituzenez, maiz, landareen hautaketa lurrak eskaintzen dituen aukeren arabera egitea komeni da. **Barazkiek**, erraterako, lur emankorrek bereziki eskertzen dituzten

heinean, lore sinplea duten **arrosondoentzat** gutti nahikoa izaten da. Barietate modernagoek, aldiz, neguan potasio aunitz eta nitrogeno gutti behar izaten dute. **Landare igokariak**, lur oso pobrea izan ezean, ez dute ongarritu beharrik izaten. Sorospilak horitzen hastean, eragin azkarreko nitrogenodun ongarritzeak ahal bezain agudo, eta kantitate tikiak maiz emanez, elikatzea komeni izaten da. Barruko landareak, gehienez ere, urtean hirutan ongarritu behar dira, bereziki, **nitrogeno** eta **potasioa** behar dutelarik. Lorontzietan daudenen kasuan, berriz, aunitz handitzen direnak baino ez dira ongarritu behar; konifero eta zuhaixka tikiak ez dute halako beharrik.

URTAROAREN ARABERA

Udaberrian sartu aitzinetik, zuhaitzen kimuak sendotzeko eraginkorra da, su-traiak aktibo baitaude. **Udaberrian** eta **udan** ere, mantenuak azkar heldarazten dituzten ongarriak erabiliko dira, kantitate tikiak. **Uda aitzinatua** delarik, berriz, eragin motela dutenak erabiltzea komeni da. **Udazken** eta **negua** atsedean denboraldiak direnez, ez dute elikatzeke beharrik. Zerbait eman nahi izatekotan, neguan, gorotza izan daiteke aukera hoberena, ongarri hori nahi bertze bota diezaiokegu, gehiegikeria arriskurik ez du eta. Urtarril bukaeran edo otsail hasieran jartzea komeni da, deskonposatzeko behar bertze denbora utziz gero, eragina nabarmenagoa izaten baita.



HUSQVARNA
HIDROGARBITZAILE
GAMA BERRIA

Husqvarna
READY WHEN YOU ARE

BANATZAILE OFIZIALA

BB BIOK BAT
TAILERRAK

Santiago Kalea, 85 • **ELIZONDO (Nafarroa)**
www.biokbat.com • T (+0034) 948 580 898

UDABERRIA DATOR, PRESTA ZAITEZ!

Aukera paregabea

Landiflor lorendan

Eskaintza zabala
denboraldiko loreetan,
landareetan...

Eta baita fruta arboletan ere.

Lore ontzi, lur ongari
eta lorategi osagarriak
zuen esku.

Landiflor-en ere
Venta Peio
fideltasun
txartela
erabili daiteke.



Landiflor

Landiflor zure lorendea egunero irekia: 9.00 - 12.30 / 13.30 - 19.00 Dantxarinea 31712 URDAZUBI / landiflor@ventapeio.com

Dantxarinea Ibardin Valcarlos Behobia

www.venta-peio.com ☎ 0820 562 267 (fr) ☎ (+34) 902 210 800 (es)

**VENTA
PEIO**[®]
Zure erosketa gunerik hoberenak
Euskal Herriko bihotzean



GIZARTEA → URTARRILEKO BATZARREAN ONARTUA

802.498 euroko aurrekontua izanen du aurten Udalak

Tifanixoko eraikinaren barrena eta eskolako eta plazako parkeak berrituko dituzte

TTIPI-TTAPA

Urtarrileko batzarrean eman zion Udalak behin-behineko onarpena 2018ko udal aurre-

kontuari: 802.498,46 euroko diru sarrerak eta irteerak aurreikusi ditu aurten. Ohiko gastuez gain, inbertsio hauek aipa daitezke: Tifanixoko eraikinaren barreneko aldea berritzea; autoenplegurako diru-laguntzak; eskolako eta plazako parkeak berritzea; *Goizuetan kontsumitu* poltsak; baserrietako pistak konpontzeko diru-laguntzak eta *kita-miedosak* jartzea; dantzen lokala berritzea; eta



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Santa Ageda bezperan kantari atera dira aurten ere

Duela ia hamar urte Umore Ona abesbatzak abiatutako ohiturari eutsiz, eta eguraldi euritsuari aurre eginez, Santa Ageda bezpera kantuz bete zuten otsai-laren 4an. 30 bat lagun atera ziren santa eskean, Olaia eta Janire trikitilariak eta Josu Garmendia eta Juan Antonio Lekuona bertsotan lagun zituztela.

auzolanetarako aseguru kontratatzea.

Goizuetan lan eta bizi bigarren jardunaldia

Martxoaren 10ean, 18:00etan, *Goizuetan lan eta bizi* dinamikaren II. jardunaldia egingen dute. Oraingoa pixka bat berezia izanen da,

martxoaren 8a Emakumeen Eguna izanik, aurten bereziki emakume nekazarien gaia landu nahi dute, eta horregatik, Gizarte Zerbitzueta-ko Berdintasun sailak, Udalak eta Cedernak elkarlanean antolatu dugu bigarren jardunaldi hau. Gonbidatuak Goizone Sestorain Leitza-ko gaztagilea eta Mai-

te Sanchez Goizuetako abeltzaina izanen dira.

Festatako batzordearen bilera

Festatako batzordea bilera egiten hasi da, eta animatzen den guztiarentzat, hurrengo zita otsailaren 28an, asteazkenean, 17:30ean izanen da.



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

Giro ederrean joan dira inauteriak

Euriak ere ez ditu zapuztu aurtengo inauteriak eta igandetik astelehenera bitarte herriko kaleak kolorez eta umorez jantzi zituzten herriarrek. Gaztetxoek Zahagi Dantzarekin hasi ziren inauteriak; astelehenean, afrikarrez bete zen herria, eta asteartean ere ez zen moztorrorik faltatu. Mozorroen harat honatek ere giro ederra jarri zuten herrian zein baserrietan.

LEITZA

GIZARTEA → OTSAILAREN 24AN

Leitza-Lekunberri mendi-ibilaldia izanen da lehendabiziko kirol hitzordua

Otsailaren 22ra bitarte eman daiteke izena

JM BARRIOLA

Herritarrak kirol hitzordutik kirol hitzordura begira ari dira. Lehendabizikoa otsailaren 24an izanen dute. Izan ere, Mendibil Mendi Taldeak bost ordu eta erdiko ibilaldia antolatuko du. 07:45ean abiatuko dira plazatik. Izena otsailaren 22a bitarte eman daiteke Astiz zehin Maimur liburu-dendetan edo mendibilaurra@hotmail.com helbide elektronikora idatziz. Autobusa 2 euro ordainduko da, dutxatzeko aukera 3 euro eta sagardotegiko bazkaria 30 euro. Era berean, antolatzaileek federatuta gabe daudenen adinez nagusikoei, zerbait gertatuz gero, ardura bere gain izanen duela adierazi dute; adinez nagusikoa ez den bati gertatuko balitzaio, berriz,

gurasoena. Aitzitik, mendi-ibilaldi hori ez da herritarrek duten kirol hitzordu bakarra.

29. LILATONA

Martxoaren 4an, 10:30ean 29. lilatona ospatuko da Donostian. Leitzako emakumeak ere itzaletik argitara joan daitezten, autobusa antolatuko dute. 09:00etan abiatuko da plazatik eta itzulera Donostiako boulevardetik izanen da, 18:00etan. Ez da deus ordaindu beharko.

VI. EUSKAL HERRIA MENDI ERRONKA

VI. Euskal Herria Mendi Erronka mendi lasterketa, euskal mendizaleatasunaren nortasuna, mendi lasterketa, lurraldetasuna, ofizialtasuna, Plazaola natur gunea eta euskara sustatzea helburu duen luzera handiko lasterketa da.

Ekainaren 2an eginen da, eta dagoeneko izena emateko aukera

zabalik dago. 67 kilometro eta 7.200 metroko gainbehera du.

Leitzan hasi eta Araitz-Betelu, Larraun eta Lekunberri barna ibilita, herrian bertan bukatuko da.

XXXX. HERRI KROSA

Leitzako XXXX. Herri Krosa apirilaren 21ean izanen dela iragarri dute. Laster eskainiko dute informazio gehiago.

Irakurle taldea

Otsailaren 14an, Xabier Etxaniz Rojo idazlearen *Waterloo galdutakoak* liburuaz hitz egiteko bildu ziren liburutegian. Liburu hori irakurri dutenak eta irakurri nahi dutenak bilduzen dira. Irakurle taldea parte hartu nahi duten guztiei irekita dago. Hurrengo irakurgaia Agota Kristofen *Koaderno handia* izanen da.

FLASH

'Musikari txikiak'

Joan den urteko arrakasta ikusirik eta haurren garapenean musika tresna baliotsua izan daitekeelakoan, aurten ere, 0-3 urte bitarteko haurrentzat musika tailerra antolatu du Aralar Musika Eskolak herrian. Tailerrek haur eta gurasoen arteko harreman afektiboa sendotzea, musikaren unibertsoaz gozatzea eta txikien zentzumenak esnatzea dute helburu. Martxoan egingen dira, ostiral arratsaldetan, haur eskolan eta Goizuetan, berriz, eskolan. Taldeak eta ordutegiak izenemate data bukatzean zehaztuko dira, beharren arabera egokituko direlarik. Lau saioak 30 euro ordaindu beharko dira. Informazio gehiago www.aralar.org atarian edo 672 122472 telefonoan lor daiteke.



ALKE KULTUR TALDEA

Santa Ageda bezperan eskean eta kantuan

Ohiturari jarraituz, herriko gaztetxo ugari ibili ziren otsailaren 4an etxez etxe kantuan, gozokiak eta dirua bilduz. Herriko etxeetan barna ibili ziren goizean, arratsaldetan, berriz, baserrietan. Iluntzean, ALKE Kultur Taldeak antolatuta, karrapean bildu eta mokadutxoak jan eta edateko aukera izan zuten kalejiran ibilitakoek.

KONTSUMO TALDEA

Otsaileko batzarrean 2017ko lana baloratu eta lan ildoen jarraipena adostu dute

JM BARRIOLA

LeitzEKO kontsumo taldeak otsaileko batzarrean 2017ko lana baloratzearekin batera, lan ildoen jarraipena adostu zuen.

Elikadura burujabetzari dagokionez, hila-beteroko eskaintzen eskaera sistema finkatzearekin batera, asteroko

saskien kanpainia eguneratu zuten. Era berean, Errigorako kanpainaren koordinazioarekin eta azaroko Leitza eta Aresoko produktuen azokarekin segitzeaz gainera, egun horretan bertako jatetxeak herriko elikagaiekin eginiko menuak eskaintzera animatuko zituztela eraba-

ki zuten. Halaber, eskolako jantokian gaia jorratzen segituko zutela ere adierazi zuten, aurten trasgenikoei helduko dietelarik.

Energiaz den bezainbatean, argindarraren kontagailua ulertu eta kontsumoa internetez kontrolatzen ikasiko dute, eguneroko kontsumo



UTZITAKO ARGAZKIA

2018rako tailerrak eta erronkak mahairatu zituzten.

moa gutxitzeko tailerra eginez. Mugikortasun mahaiari babes eta bultzada emateaz ere aritu ziren. Komunikazio alorrean, webgunea kudeatzeari dagokionez,

gmail zerbitzua eta sare sozialak izan zituzten hizpide. Azkenik, ingurugiroari eta berrerabilpenari dagokionez, Ateko gazteekin koordinazioa sustatu nahi dute.

GIZARTEA → MARTXOAREN 3RAKO

Mus txapelketa antolatu du Pake Toki Elkarteak

Otsailaren 28a bitarte eman daiteke izena

TTIPI-TTAPA

Mus txapelketa berreskuratzea erabaki du aurten Pake Toki Elkarteak Zuzendaritzak. Formatua aldatuko da, ordea, eta txapelketa luzea egin ordez azkarra izango da. Partida guztiak, egun bakarrean, martxoaren 3an, jokatuko dituzte. 15:30ean hasiko dira eta nahi duen orok, elkarteak kide izan edo ez, parte har-

tzeko aukera izango du. Interesa dutenek otsailaren 28a baino lehen eman beharko dute izena eta bikoteko 10 euro ordaindu beharko dira. Irabazleek axuri eder bat izango dute sari; bigarrenek, berriz, bi oillasko; eta hirugarrenek bi ardo botila.

Txapelketa ondoren, nahi dutenek, afaltzeko aukera izango dute. Izena emateko epea otsailaren 28ra artekoa izango da. Menua: sarrera-koak, legatza txirlekin, axuria, pastela, kafea eta kopa.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Leire Baraibar bigarren Negu Trail lasterketan

Berastegin egin den Negu Trail Lasterketaren lehenbiziko edizioan, emakumezkoen artean, bigarren postua lortu zuen Leire Baraibar aresoarrak. Veronica Dominguez izan zuen aurretik. Hala ere, Leire Baraibarrek ez zion garaipena merke saldu, 15 segundu beranduago helmugaratu baitzen. Guztira 250 lasterkalarik parte hartu zuten eta aurreko egunetan eginiko elurrak probaren zailtasuna areagotu zuenez, 16 kilometroak egiteko gorputza puntu-puntu duela erakutsi zuen.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Hotzari aurre eginez, inauteri giro beroa

Otsaileko lehenbiziko asteburuan ospatu ziren herrian inauteriak. Festa hasteko eskolako haurrek Afrikako kolore eta erritmoak ekarri zituzten herrira jantzi koloretsuekin eta horren ondoren, herriko eskea egin zuten Lagunarteko gazteek. Larunbatean baserriko eskea eta karroza desfilea izan ziren eta, beste behin, irudimenik ez zen falta izan. Lagunartekoek eliza erre zen momentua irudikatu zuten eta Guraso Elkarteok, berriz, euskal inauteria.

FLASH

Sutarako egur loteetan izena eman daiteke martxoaren 9ra arte

Udalak jakinarazi duenez, 2018ko egur lotea eskatzeko epea zabalik dago eta martxoaren 9a baino lehen eskatu behar da. Hiru dira eskatzeko moduak eta prezioak: lotea etxera eramatea nahi duenak 190 euro ordaindu beharko ditu; pistan jaso nahi duenak, berriz, 90 euro; eta azkenik, zutik jasotzekotan, 45 euro.

BAZTAN

GIZARTEA → TUNELAK HESTERAKOAN

Belatetik nazioarteko kamioen pasabidea debekatzea eskatu dute

Bertzela errepidea «arras arriskutsua» bihurtuko dela uste du Udalak

TTIPI-TTAPA

Otsailaren 9an egin zen ez ohiko osoko bilkuran Baztango N-121-A errepidetik nazioarteko zamen garraioa debekatzeko Nafarroako Gobernuari eskaria egitea erabaki zuen Udalak. Erabaki horrekin Belate eta Almandozko tuneletan segurtasuna hobetzeko lanengatik trafikoa Belateko mendetik desbideratzeko Nafarroako Gobernuak egindako iragarpenari erantzun nahi izan dio Udalak. Izan ere urtarriaren akaberan Manu Ayerdi Gobernuak lehendakariordeak Belateko tunelean aipatu lanak egiteko zazpi hilabetez hetsiko zitzutela jakinarazi zuen. Horren aitzinean Baztango Udaleko EH Bilduren eta Ezkerraren udal-taldeak «eskualterat heldu ez, baizik pasan ari den nazioarteko zama garraioa» debekatzeko proposamena aurkeztu

zuten, «errepidea eguneroko erabiltzaileen dako arras arriskutsua bihurtuko baita». Proposamenaren alde Geroa Baik eta Auzolaneanek egin zuten, denera zortzi bozka eskuratu. UPNren bi zinegotziek abstentziorat jo zuten.



ÚTZITAKO ARGAZKIA

Arraizko eskolako leihoak aldatu berri dituzte

Eraginkortasun energetikoa hobetzeko Arraizko eskolako leihoak aldatu ditu urte hasieran Udalak, horien arotzeria barne. Lanak 15.817,89 euroko kostua izan du eta Zur-Zarrek egin du. Azkeneko urteetan Udalak Azpilkueta, Erratzu, Amaiur, Arizkun, Gartzain eta Elizondoko eskoletan eta Baztan Ikastolan leihoak aldatu ditu. Esku-hartze hauekin eskola barneko giroa hobetzeaz gain energia eraginkortasun eta aurrezpenean ere hobekuntzak gertatu dira. Aurtengo legealdian Arraizko eskolako goitiko eta beheko komunak ere zaharberritu ditu Udalak, eta beheko solairuan parke flotantea paratu du; denera 11.584 euroko bertze inbertsioa eginez.

EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNAREN HARIRA

Bakarrizketak, ipuin kontalaria eta dokumentala prest dituzte

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 8ko Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, zenbait ekitaldi prestatu ditu Udaleko Bertintasun Batzordeak. **Martxoaren 4an**, igandean 19:00etan Arizkunenean, *Bakean dagoenari bakean utzi* eskainiko dute. Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai artistek, elkarre-

kin jositako sei bakarrizketa aurkeztuko dituzte, euskara eta generoa umoregai hartuta.

Martxoaren 6an Elizondoko haur liburutegian, **martxoaren 15ean** Anizen eta **martxoaren 23an** Erratzun ipuin kontalaria izanen dute. Saio guztiak 17:30ean izanen dira.

Martxoaren 7an, asteazkenean

19:00etan Arizkunenean, *Estitxu* dokumentala eskainiko dute. Franck Dolosor egileak aurkeztuko du *Beskoitzeko errexinola* bezala ezagutu zuten Estitxu kantariari buruzko ikusentzuneak. Emanaldi horrek, Nafarroako Gobernuaren Arte eta Kultura 2018 programaren laguntza jaso du.

tanatorios
IRACHE

24 ORDUKO TELEFONOA
948 581 959 | 948 637 404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADAKOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T.948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com
www.harrilan.com

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

HARRI LAN, S.L.
ESTRATEGIA ENERGETIKOA

BAITA ERE **HORMIGOI INPRIMATUA**

EUSKARA → MARTXOAREN 1EAN

Euskaraldia erronkaren aurkezpena eginen dute

Baztango euskalgintzak antolatuta, Arizkunenea Kultur Etxean emanen dute hizkuntza ohiturak aldatzea helburu duen egitasmoaren berri

TTIPI-TTAPA

Baztango euskalgintzak antolatuta, martxoaren 1ean arratsaldeko 8etan Arizkunenea Kultur Etxean Euskaraldiaren aurkezpena eginen dute.

Eneritz Rekarte, Baztango Euskara teknikariak aipatu digunez, «aurten erronka interesgarria heldu zaigu Euskal Herrira, Euskaraldia izenekoa, eta Baztan erronka honen parte izatea nahi dugu. Baztan euskararen arnagune dugu eta eus-



Egitasmoaren helburua euskaltzaleak hamaika egunez aktibatzea da.

karaz daki gehiengoak. Ezagutza maila altua dugu, aldiz, erabilerarena apalagoa da. Arlo, lagun, leku... zehatz batzuekin eta batzuetan gaztelania erabiltzeko joera dugu nahiz eta bi aldeek euskaraz jakin. Beraz, egitasmo honen helburua hizkuntza ohiturak aldatzea da, euskarak Baztanen lasai aski arnasa hartu dezan».

Euskaraz jakin edo ulertzen dugun pertsonak aktibatuta, hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa da, eguneroko bizitzan gaztelaniari jotzeko ditugun inertiak hautsi nahi dituen. Sa-

iakera pertsonala eta kolektiboa izanen da, herritarrek eta instituzioek batera landuko dutena. «Baztanen herritar anitz gara euskaraz bizi eta arnasa hartzen jarraitu nahi dugunak, bihotzetik ahora ekarri nahi dugu euskarra, ahoak bizi-bizi jarri eta belarriak prestatzeko», dio euskara teknikariak.

«HAMAIKA EGUNEZ EUSKALTZALEAK AKTIBATUTA EGOTEA DA HELBURUA»

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra arte, 11 egunez euskal-

tzaleak aktibatuta egotea da helburua. Horretarako, hainbat gauza egin beharko dira, giroa berotzeko eta ahalik eta herritar gehienek parte hartzeko.

«Euskararen normalizazioan pausu handia suposatu dezake honek eta gure eskualdeko euskaltzaleak elkartu nahi ditugu bertan, eta zuek gure artean izatea gustatuko litzaziguke. Lan honetan Udalak bade bere erantzukizuna, noski, baina instituzioek bakarrik ezin diogu erronka honi erantzun», aipatu du Baztango euskalgintzak.

ZIGA ETA ZIGAUURRE

Saneamendu eta zolaberritze lanetarako finantziazioa onartu dute

TTIPI-TTAPA

2017-2019 epealdiko tokiko inbertsio plana abian den honetan, Zigan eta Zigaurren saneamendua eta zolaberritzea egiteko eta argien sarea berritzeko proiektuen finantziazio planak onartu ditu Udalak. Lan finantziatuziorako 209.907 euroko ekarpena onartu dute, EH Bildu, Ezkerria, Geroa Bai eta Auzolaneanen aldeko zortzi bozkarekin eta UPNren bi zinegotziren abstentzioarekin.

Egin beharreko lanak ondoko hauek dira: Zigaurren hornidurako, saneamenduko eta euri-uretako sareen moldaketak, karriken zolatzea eta Zigan argien sarea zaharberritzea. Osoko bilkuran erabakitakoaren arabera, lanak 2017ko diruzaintzako gerakinarik inbertsitatuko dituzte. Zuzenbidean lanak urtearen bigarren erdian eginen dira. Lanek 645.762 euroko aurrekontua dute, Udalaren gain egonen dira aipaturiko 209.907 euroak eta gainerakoa Nafarroako Gobernuak diruz lagunduko luke. Urtarrilaren 12an Udaleko ordezkariak herriko alkatearekin eta kargodunekin lan xehetasunez aritu ziren eta beraien onikusiarekin orain onartu diren proiektuak idatzi ditu LKSe.

zergalan | **asegi**
asesores y consejeros de empresa
enpresa kontseilari eta aholkulariak

ORAIN ZERBITZU BERRIAK ESKAINTZEN DITUGU

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 - F. 948 580 648

www.zergalan.es | info@zergalan.es
www.asegi.com

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 - F. 948 451 304

BAZTAN

GIZARTEA → UDALAREN BEKA DEIALDIA

Ikasketa akaberako proiektu eta lanak egiteko laguntzak emanen ditu aurten ere

500 euroko lau laguntza emanen dira eta eskariak aurkezteko epea otsailaren 28an akituko da

TTIPI-TTAPA

Baztan ikergai duten ikasketa akaberako proiektu edo lanak egiteko diru-laguntza deialdi berria egin du Udalak. Master akaberako lanak ere onartzen dira. Aurkeztutako en artean 500 euroko lau laguntza emanen ditu.

Eskariak aurkezteko epea Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabete batekoa izanen da (urtarrilaren 31tik otsailaren 28ra arte, hain zuzen



ARGAZKIA ETA TESTUA: ITXASO ARIZMENDI

Giro ederrean joan dira inauteriak Oronoz-Mugairin

Inauteriak giro ederrean joan dira Oronoz-Mugairin ere, ilbeltzeko azken aste-buruan. Gaztee eskerrak eman nahi dizkiete «Gaztelune elkarteko kideei eta noski, Pierreseneko familiari hain otordu goxoak prestatzen jarraitzeagatik!».

ere, biak barne). Udaletzeko webgunean ere oinarriak eskuratzen ahalko dira eta edozein zalantzetarako, udaletxerat joaten ahal da.

Deialdi honen helburua da Baztango ikasleen artean Baztani eta Baztango etorkizunari buruzko kezka eta interesa piztea eta, beraiek egin beharreko lanak

edo proiektuak, helburu horretarako egitea. Proiektuak eta lanak bakoitzaren ikasketa arlokoak izanen dira.

Deialdia 13/2018 Aikatzeko Ebazpenean

onartutako oinarriek arautzen dute eta udalean eskuragarri daude.

Deialdian parte hartzeko, ikasleek eskariarekin, proiektuaren edo lanaren memoria aurkeztu beharko dute, gehenez lau orrikoa. Bertan helburuak, metodologia, iturriak, oinarriko bibliografia... zehaztu daitezke. Memoria honek ikasketa akaberako proiektu eta lanaren tutorearen oniritzia beharko du.

Aurkeztutako memoriak eta proposamenak helburu horrekin osaturiko batzordeak balartuko ditu. Bertan Elizondoko lanbide eskolako zuzendaria, Lekarozko ikastetxeko zuzendaria, Cederna-Garalurreko teknikaria, alkatea eta udal idazkaria egonen dira. Batzordeak arloko adituekin kontsultak egingen ahalko ditu.



ARGAZKIAK ETA TESTUA: MAITANE MARITORENA

Orakunde Eguna ospatu dute Anizen

Herri gehienetan inauteriak ospatzen ari ziren bitartean, Anizek Orakunde Eguna ospatu zuen, otsailaren 10ean. Haur eta gurasoak Plaxa Xaharren hitzordua egin eta musikarien konpainian Askagaindik hasi ziren etxez etxe; zaretza eskuan, arrautzak, xingarra eta xixtorra bildu zituzten. Ondotik, jaki horiekin egin zuten merendu-afaria. Etxez etxeko itzulia akitu, frontoirat joan eta aulki dantza egin zuten. 50 lagun inguru, elkartean bildu eta bazkaldu zuten. Aurten, gainera, Anizko herriak sukaldariei, Dorita Barrenetxe eta Roxario Iturralderi, eskerrak eman nahi izan dizkie urtero-urtero bazkaria prestatzen aritu direlako. Bazkalondoan, Ainhoa Maritorea alkateak esker hitzak eman zituen, eta oroigarri bana eman zien isilpeko lanean hainbortze urtez aniztarrei jatera emateagatik. Gero, frontoian bildu ziren eta haur, gazte eta helduak jostetan aritu ziren. Orakunde eguna haurren ospakizunetarako bada ere, jokoetan herritar guztiak parte hartzen dute. Hondarreko jokoa oilarra harrapatzea izan zen, Leize Maritorenak harrapatu zuen. Berriz elkarterat joan eta bildutako puxkekin Doritak eta Txarrik prestatutako afari goxoa jan zuten. Herriaren izenean, esker mila Dorita eta Txariri.

GIZARTEA → ETXERA BILA ERE JOAN DAITEZKE

Harremana jubilatuz elkarrekin doako bi ikastaro antolatu ditu

Arizkun eta Elizondon egiten dituzte martxoan 'Bizi zahartzaro aktiboa' izenburupean

TTIPI-TTAPA

Harremana jubilatuz eta pentsionisten elkarrekin doako bi ikastaro antolatu ditu Baztanen. Lehenbizikoa Arizkun egiten dute eta bigarrena Elizondon, eta bi kasuetan, *Bizi zahartzaro aktiboa* izenburupean. Arizkun, martxoaren 5ean hasiko dira, eta ondoko hiru asteleheneretan segituko dute: martxoaren 12an, 19an eta 26an. Medikua egiten dute, 16:30etik 18:30era.

Parte hartu nahi dutenek Arizkun eta Erratzuko kontsultategietan apuntatu beharko dute, edo bertze, 659 849570 telefonora deituta.

Elizondon, berriz, martxoaren 15ean hasiko dira, eta martxoaren 22an, 29an eta apirilaren 6an segituko dute. Arizkuneko lehen-dabiziko solairuan bilduko dira, jubiloteka dagoen tokian, baina antolatzaileek igogailua badela oroitarazi dute. 16:30ean hasi eta 18:30ean akituko dute.

Elizondoko ikastarotan parte hartzeko Elizondoko Osasun Zentroan eman beharko da izena, eta bertze jubilotokian (astelehen eta ortzegunetan 10:00etatik 12:30era). 659 849570 telefonora dei-



ARGAZKIAK: JUAN MARI ONDIKOL

Giro ederra Elizondoko karrozen desfilean

Argazkiak ikusita, ez dago erran beharrik zer nolako giroa izan zen Elizondoko inauterietako larunbateko karrozen desfilean: Bikaina!

tuta ere apunta daitezke.

Bi kasuetan, hala nahi izanez gero, parte har-

tu nahi dutenen bila etxera joanen dira bila.

Ikastaroak La Caixaren babesarekin anto-

latu dituzte, eta Baztango Udalaren eta Arkupeak elkarrekin laguntzarekin.

Osatzuz
Psikologia- Psikoterapia
Haurrak-helduak

Garbiñe Goia Irazoki
GESTALT PSIKOTERAPEUTA ETA
BIKOTE ETA FAMILI PSIKOTERAPEUTA
BAKARKAKO TERAPIAK:
haurrak, nerabeak, helduak
619 343 755 Alzate 1 BERA

ANZABAL INMOBILIARIA



- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria
Baserrri, borda, pisu, etab... salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 • ELIZONDO • Tel. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

BAZTAN

OSPAKIZUNAK → OTSAILAREN 24AN

Baratzeko haziak mantentzeko ikastaroa prestatu dute

Oronozko batzartokian, Ruth Peñaren eskutik

@gmail.com helbidera idatzi behar da.

Joseba Tapia eta Besamotzak

Joseba Tapia eta Besamotzak taldeak kontzertua eskainiko dute otsailaren 25ean, igande arratsaldeko zazpitan Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. Udaleko Kultura Batzordeak 2018ko Arte eta Kultura programaren baitan antolatutako emanaldirako sarrera doan izanen da.

TTIPI-TTAPA

Baztango Agroekologia Eskola Herritarren baitan, baratzeko haziak mantentzeko ikastaroa eskainiko du Ruth Peña baratzekainak otsailaren 24an, larunbatean 10:00etatik 12:00etara Oronozko batzartokian. Izena emateko [hazitikhozie1](#)



UTZITAKO ARGAZKIA

Iraultza boltxebikearen mendeurrena mintzagai Gaztetxean

Orain ehun urte Errusian egindako iraultza boltxebikearen ikasgaietaz aritzeko otsailaren 2an Elizondoko gaztetxean mintzaldia egin zuten. Iraitz Agirre eta Eneko Compains historiaren bilakaera errotik aldatuko zuen gertakiaz aritu ziren; Agirre ikuspegi feministatik eta Compains Euskal Herriko jokaleku politikorako gakoak eskainiz.



ARGAZKIA ETA TESTUA: NEREA MORTALENA

Orakunde eta Inauteri egunak ospatu dituzte Arraiozen

Orakunde eguna sorpresarekin hasi zen Arraiozen, elurraren bisita izan baitzuten herriak. Goizean denak baseritarrez bezituz, meza izan zuten eta ondotik, ohiturari segituz, herriari bueltaxka eman zioten musikaren laguntzaz eta herriko karrika alaitzeko aukera izan zuten. Eguerdian bazkaria izan zuten herriko elkartean. Bertan haurrak, guraso, irakasle eta herriko alkate eta alkategunehok ohikoa den menuaz gozatzeko modua izan zuten. Arratsaldean, berriz, jokoak izan zituzten eta eguneko momenturik garrantzitsuenak, oilar harpatzea. Hiru oilar harpatu zituzten eta hauek izan ziren oillarrik harpatu zituzten haurrak: ttikietan Jon Villanueva Astizek, ertainetan Ganix Alunda Hualdek eta haundietan, berriz, Iker Ezkurra Navarrok hartu zuen. Eguna borobiltzeko txokolate bero-beroa izan zuten.

Otsailaren 9an eta 10ean, eguraldi hotza inauteri giroaren bidez goxatu zuten Arraiozko inauterietan. Ortziralean, ostatuan gosaltzea aurreikusia bazuten ere, azken momentuan herriko elkartean egin behar izan zuten. Bapo gosaldia ondotik, herriko hiru baserri bisitatu zituzten herriko 14 neska-mutilek. Ortzirala afora ederra eginez borobildu zuten. Bien bitartean, haurrek eskolako ospakizunaz ospatzeko aukera izan zuten. Biharamunean, gazte andana bildu zen 15 etxetan barna etxez etxe ibiltzeko. Guztiek, mozorroa jantzita, kanta zaharrak kantatuz, pasatu zuten eguna. Ondotik, jokoak ere egin zituzten, irriz lehertu zirelarik. Haurrek Urrutiako plazan zuten hitzordua. Bertan txokolatea edan zuten. Iluntzean su artifizialez gozatu zuten. Eguna akitzeko Batzartegian afaldu zuten, inauteririk heldu den urtera arte agurtuz.

GIZARTEA → ASPALDIA HETSIAGATIK

Zaborrak Aitxarreko zikintegirat eramaten dituzte oraino

Garbi mantentzea guztion ardura dela gogorarazi dute

Josebiñe eta Koro

Aunitz urte joan dira Udalak Aitxarreko zikintegia hetsi zuenetik. Orduan lurra bota, eta eremu hori garbi-garbi utzi zuen. Hala ere, jende axolagabeak beren zikinkeriak harat eramaten segitzen du oraino, bazter eder hori argazkietan ikusi dezakezen maneran utziz.

Bizi Garbi elkarteak biltzen ditu gure zaborrak, eta biltzen ez di-

tuztenak (tamaina handikoak edota bereziak), Senpereko zabortegirat eraman behar ditugu. Ongi izanen zen denenek hala egitea, herria garbi mantentzea guztion ardura baita.

Joko besta

Maiatzean Saran egiten da Xaretako lau herritako, Etxalar eta Berako besta. Herriko taldea osatzeko Marixan ostatuan eman behar da izena, zer jokotan parte hartu nahi den adieraziz: bote-luzea, indar jokoak, bizikleta, lasterka, euskal dantzak, musa, bertsoak, sukaldaritza... aukera zabala dago.



UTZITAKO ARGAZKIA

Aitxarreko zikintegia zen eremua zikinkeriz gainezka dago.



UTZITAKO ARGAZKIA

Herritarren zintzurak izan ziren akordeoilariaren ordezkio

Aurtengo inauteriek berezitasun bat izan dute: sekula ez bezala, akordeoilari ez da izan. Baina oztopoa izan zitekeen hori, aukera polita suertatu da, behin ere baino gehiago kantatu zutelako. Perkusio musika-tresnak eraman eta zintzurak larrutu zituzten kantari. Dantzatzeko arazorik ere ez zen izan: *Andre Madalen* kantatuz, jota ere dantzatu zuten, eta *Iturengo Arotza* kantarekin, berri, zortzikoa.

ESKUALDEKO UDAL ORDEZKARIEN ESKARIA NAFARROAKO GOBERNUARI

Belateko tunelen lanetaz aritzeko lehenbailehen bilera egin nahi dute

TTIPI-TTAPA

N-121-A errepidea igarotzen den herri aunitzetako udal ordezkariak bilera egin zuten otsailaren 7an Donezteben, Malerrekako Mankomunitatearen egoitzan. Maiatzetik aitzinera Belate eta Almandozko tuneletan egin gogo dituzten lanek kezka sortu dute eta horren inguruan solasteko lehenbailehen bilera bat egitea eskatu diote Manu Ayerdi, Nafarroako Gobernu Garapen Ekonomikorako kontseilariari.

Itxura batean, lanek irauten duten bitartean, zazpi hilabetez itxita egonen lirake Belate eta Almandozko tunelak

eta horrek, errepide zaharra erabiltzera behartuko lituzke gidariak. Hori ikusita, udal ordezkari batzuren ustez, behin betiko soluzioa egin bitarte (tunelak bitan banatzea edo ebakuazio-galeria eraikitzea) gibeleratu beharko lirake lanak, ez baitu zentzurik orain, behin behineko lan baterako zazpi hilabetez itxia edukitzea eta gero, Europako araudira guztiz egokitzeko lan horiek egiteko berriz itxi behar izatea.

Lanak gibeleratuko ez balira, nazioarteko ibilbideak egiten dituzten kamioiak A-15 autobiderra bideratzea ere eskatu dute udal ordezkariak ia aho batez, bai

garraiolarien beraien segurtasunerako (Belateko errepide zaharreko zenbait bihurtzetan ezinezkoa baita bi kamioi gurutzatzea), baita bertze erabiltzaileen segurtasunerako ere.

Nafarroako Parlamentuko Garapen Ekonomikorako Batzordera joateko borondatea ere azaldu dute inguruko alkatetzinegotzietatik, lan hauen inguruan beraien jarrera azaltzeko.

LAB sindikatuak ere eztabaida partehartzailea proposatu du, Nafarroan aurtengo lan instripuan hil den lehen langilea otsailaren 10ean hil baitzen Zozaian, N-121-A errepidean.

URDAZUBI

EKONOMIA → BALIO ERANTSIAREN ZERGARI DAGOZKIONAK

Nafarroako Ogasunak 124.000 eurotik goiti erreklamatu dizkio Udalari

Zati bat zaborraren kudeaketari dagokio eta «kriterio aldaketa dela eta, zabor tasak %10 igo beharko ditugu» adierazi du alkateak

Iñigo IMAZ

Urdazubiko Udalak 2013tik aurrera ez omen dizkio Ogasunari Balio Erantsiaren Zergari (BEZ) dagozkion 124.450,97 euro ordaindu. Hainbat kontzeptu daude kopuru horren gibelean. Lehen momentuan 171.917,64 euro eskatu zizkion Nafarroako Gobernuak Udalari, baina helegitea paratu ondotik, 47.466,67 euroko jeitsiera onartu dute Iruñean.

«ZABOR TASAK %10 IGO BEHARKO DITUGU»

Hainbat partida edo kontzeptu erreklamatu dizkio udal gobernuari. Ogasunak 39.651,67 euro galdegin dizkio zaborren kudeaketagatik. Gaur egun, Bizi Garbia Iparraldeko enpresak jasozten ditu Urdazubiko zaborrak, eta Ogasunean orain arte zeramaten «kriterio aldaketa dela eta», hemendik aitzinera, Santiago Villares alkatearen erranetan, «zabor tasak %10 igo be-

harko ditugu». Gainera, Villaresek ez du bigarrena ikusten mugaz berteko enpresa bat kontratatu behar izatea Urdazubik, eta Gobernuari subentzio bat edo soluzio bat eman dezan exijitu zion gan den urtarilaren 15ean igorritako email batean.

ESPAINIAKO ITZULIA ETA PUBLIZITATEA

Bertzalde, Espainiako Txirrindularitza Itzulian eta Frantziako hainbat enpresatan kontratatutako publizitatea eta materialak batuz 130.000 eurotik goiti gastatu zituen Urdazubiko udalak Frantzian 2016an, eta horiei dagokien BEZagatik 30.424,49 euro ordaintzea falta omen da Gobernuaren ustez.

ARGINDARRA ETA ELEKTRIZITATEAREN GAINEKO ZERGA

Urdazubik EDFri erosten dio argindarra eta elektrizitatearen gaineko zergari dagokionean, %21eko BEZa eta horren gaineko inpostu bereziaren %5a, guztira 44.817,91 euro zor ditu Urdazubik Nafarroako Gobernuaren arabera. Udalak elektrizitatea autokontsumorako erosten du, eta hiru hilabeteko faktura intrakomunitarioak pasatzen ditu Urdazubiko gobernuari. Hortaz, litekeena da, argindarraren fakturak ere goiti egitea.

Akitzeko, zor hauen guztien ondorioz, bai BEZaren likidazio diferentziagatik, bai Bizi



UTZITAKO ARGAZKIA

Espainiako txirrindularitza itzulian kontratatutako publizitatearen eta materialean erabilitako diruari dagokion BEZa ere ordaindu beharko du Udalak.

Garbiren fakturengatik, baita Espainiako Itzulia eta bertze publizitate eta

kontratazioengatik ere, nahiz elektrizitatearen zergen ordainketan izan

atzerapenen ondorioz, bertze 9.556,90 euro ordaindu beharko dira.

- Orduzabala.
- Familien beharretara egokitzen gara.
- Urte osoan irekia.

LANDA

Haurtzaindegia

ZATOZ GU EZAGUTZERA!

Juan Aguirre, 1 · 31711 URDAZUBI - URDAX
(0034) 693 764 949
info.landa03@gmail.com

GIZARTEA → MARTXOAREN 1ETIK 3RA

Zuhaitz lepatuen Europako II. jardunaldia Saran egingen dute

Hiru egunez, mintzaldiak, mahai-inguruak, oihanera bisitak eta gehiago antolatu dituzte

TTIPI-TTAPA

Hamar herrialde baino gehiagotako jendea bilduko da martxoaren 1etik 3ra Lur Berri gelan, zuhaitz lepatuen inguruko Europamailako II. jardunaldia egiteko Sara aukeratu baitute.

Nekazaritza eta basozaintzaren alorrean ari diren Frantzia eta Euskal Herriko erakundeek antolatu dituzte jardunaldiak, tartean, Euskal Herriko Laborantza Ganbarak. Hiru egunez mintzaldiak, mahai-inguruak, tailerrak, oihanera bisitak, erakustaldiak... presatatu dituzte. Antolatzaileek 300 bat lagun espero dituzte, eta horien artean, nazioarteko jendea.

Egunez egun, hau izanda egitaraua:

MARTXOAK 1, ORTZEGUNA

- 09:00etan: harrera.
- 09:30ean: ongiatorria.
- 10:00etan: *zuhaitz lepatuak paisaietan: historia eta perspektibak* mintzaldia.
- 12:30ean: bazkaria.
- 15:00etan: oihanera bisita, atelier praktikoak eta tresna erakustaldiak.
- 19:30ean: afaria.
- 12:30ean: *Trognes, Les arbres aux mille visages* filma.

MARTXOAK 2, ORTZIRALEA

- 08:00etan: harrera.

- 09:00etan: *zuhaitz lepatuen fisiologia eta produktibitatea* mintzaldia.
- 10:30ean: etenaldia.
